

# Goienkaria

EGUBAKOITZA • 2001eko ekainaren 22a • II. urtea • 27. zenbakia • DOAN BANATZEKO



## Goienka 2a

Asier Ena eta Maite Lazkano: dantza sueltoan nagusi

## KIROLA

Bergara Hiria pilota txapelketako finalak martitzenean /10

## MIKEL IRIZAR

"Orain dela bost urte bakarrik, gaur egungo Goiena ez zen posible izango" /9

## DEBAGOIENeko BAINU TOKIAK AZTERTU DITUGU

# Heldu dira uda eta beroa

sAztzo, eguena, sartu ginen udan eta, oraingoan bai, beroa ekarri digu. Primerako eguraldia izan dugu San

Juan bezperako egunetan. Halako beroak, gainera, arropak kentzera eta igerileku, hondartza, urtegi edo

erreketan bainatzera animatu du jendea. Debagoienean hondartzarik ez dugunez, beroari aurre egiteko,

bainua hartzeko eta eguzkitan egoteko, nora mugitzen da jendea? Bailarako bainu tokiak aztertu ditugu. /2-3



Martitzenean dagoeneko jendea ur egarriz gerturatu zen Garaioko "hondartzara".

## ATXILOTUAK

### Zazpi atxilotuetatik lau aske geratu dira; hiru, kartzelara

Espainiako poliziak joan zen eguenean Arrasaten eta Aramaion atxilotu zituen zazpi lagunetatik lau aske geratu dira eta beste hiru espetxeratu egin dituzte. Hauetako biri —Txus Goikoetxea eta Premin Sanpedro— ETako kide izatea leporatu diete eta beste, Natale Landa, Ekin auziagatik espetxeratzeko agindua eman du epaileak. Aitor, Gorka eta Iban Astondoa anaiak, eta Nerea Hernandez aske laga dituzte. /3

## BERGARA

### Juan Mari Uriartek Elosun emango du meza domekan

Juan Mari Uriarte Gipuzkoako gotzaiak inaguratu du Elosuko San Andres Elizaren estalki berria. Inaugurazioa domekan izango da, Gotzaiak 12:30ean emango duen mezarekin. Bestalde, abadetxea ere berritu berri dute. Lan horiek, baina, hainbat auzotar eta lagunek egin dituzte auzolanean. /4

## ARRASATE

### Egitamu Orokorra onartu du aste honetan udalbatzarrak

Egitamu Orokorri hasierako onarpena eman dio oraingo astean Arrasateko udalbatzarrak. EHren, EBren eta EAren aldeko botoekin eta PSE-EEren, PPren eta EAJren kontrakoekin onartu da. Hortaz, datozen zortzi urteotan herrian emango diren aldaketak eta hazkundera modu antolatua eta ordenatuan egiteko irizpideak zehaztu ditu udalak. /5

Bisabe Pol. F2 - Tel: 943 79 81 66 - E-mail: ofiservis@interbook.net - ARETXABALETA

**OFISERVIS**

Inpresio Digitalen Zerbitzuak

- Kartelak, Posterrak, koloretan mugarik gabeko neurrietan
- Bukaerak: Kartoi-luma, plastifikazioak, enmarkazioak
- Euskarriak: Argazki papera, biniloa, mihisea, banderatzkoa, adhesiboa, poliester argiduna, e.a.

ORAIN!  
Deba bailaran!


PC - MAC



## Etxaniz kalean 21 urte eta gero

Jose Mari Etxaniz, 21 urte eta lau hilabete espetxean eman dituen preso bergararrari omenaldia egingo diote zapatuan Bergaran. Etxaniz domeka goizean irten zen Topaseko espetxetik eta kartzela aurrean egin zioten lehenengo omenaldia argazkian ikus daitekeenez. /3

# Udako bainu




## Arrasateko igerilekuak

Nagusiek, 20 urtetik gorakoek, 700 pezeta ordaintzen dute sarre-  
ra. Besteek, 375 pezeta. Hiru bainuontzi dituzte: handia edo olin-  
piarra, txikia, 16 metro luze dena, eta umeendakoa, 10x10 metro-  
koa. Ez dauka ez taberna ez hamaka zerbitzurik ere.



## Bergarako igerilekuak

Sarrera 550 pezeta kostatzen da (14 urtetik beherakoentzat, 375).  
Bi bainuontzi ditu: handia, 50 metro luze, eta txikia, 23 metrokoa.  
Taberna (ogitartekoak eta kazuelatxoak ere ematen dituzte) eta  
hamaka zerbitzua du. Eguzkia hartzeko hiru belardi.



## Udalako igerilekuak

Sarrera honako prezioan dute: 650 pezeta nagusiendako eta 550  
pezeta gaztetxoendako. Hamar egunerako bonoak ere saltzen  
dituzte, 5.500 pezeta. Aldagelak eta dutxak ditu eta hamakak doan  
dira. Bi bainuontzi ditu, handia 25 metro luze da.



Garaio da ondoen prestatuta dagoen "hondartza". Gasteiztik ez ezik, Debagoienetik ere jende asko joaten da bertara.

## Itsasorik ez, baina igerileku, urtegi eta errekatxoak baditugu

ENEKO AZKARÁTE

**B**ailarako bost herritan daude igerilekuak: Arrasaten, Bergaran, Oñatin, Aretxabaletan eta Eskoriatzan. Estali gabeak, ordea, bitan bakarrik: Arrasaten eta Bergaran. Arrasaten bi daude: Musakolako udal igerilekuak eta Udalako Uxarte, azken hori pribatua. Ekainaren 11n zabaldu zituzten kanpoko igerilekuak eta irailaren 16a arte egongo dira zabalik.

Bergarako Agorrosingoak dira zaharrenak eta handienak. Bi bainuontzi daude, olinpiarra (50 metro luze) eta txikia. Bestalde, eguzkia hartzeko toki handiena duena da, hiru belardi zabal ditu eta. Horrez gain, taberna eta terraza modukoak ere baditu baita arbolapekoa ere, mahai eta aulki eta guzti. Arrasaten, berriz, Musakolako

igerilekuek 25 urte beteko dituzte datorren urteko San Juan Egunean. Horiek baino lehena-gokoak dira Udalako Uxartekoak, bailarako igerileku pribatu bakarrak. Paraje bikainean daude eta taberna eta jatetxea ere alboan ditu.

Musakolakoek, bestalde, hiru bainuontzi dituzte: olinpiarra, txikia eta umeendakoa, azken hori 30 zentimetro sakon dela. Eguzkia hartzeko, berriz, ez dauka toki askorik. Horregatik, berriztatze lanak egin nahi dituzte. Halaber, garestienak dira: 700 pezeta nagusiendako, Bergarakoen 550 pezeta edo Udalako 650 pezeta aldean. Hala ere, Musakolakoak dezente merkeagoak dira 20 urtetik beherakoendako, langabeendako, ikasleendako... Hamar bainurako bonuak ere saltzen dituzte hirurretan, eta Musakolan eta Agorrosinen beherape-

nak egiten dituzte bazkide txartel familiarra ateratzearren. Bietan ere, uztailako astegunetan ibiltzen da jende gehien; eguraldi ona egiten duen uztailako edozein egunetan 1.500 lagun sar daitezke.

Oñati, Aretxabaleta eta Eskoriatzakoak estaliak dira. Oñatin eta Eskoriatzan, baina, eguzkia hartzeko toki badago. Uda parteko egokitzen dute igerileku ondoan. Eskoriatzan, gainera, umeentzako kanpoko igerilekua egin zuten iaz. Bestalde, Aretxabaletako eta Arrasateko udal-  
lek hitzarmena sinatuta dute, Aretxabaletako igerilekuak abuztuan ixten dituztenean, bazkide txartela dutenek Musakolakoak erabili ahal izateko.

### ZADORRAKO URTEGIAK

Zadorrako urtegiak, Garaio eta Landa batez ere, dira Debagoieneko hondartzak. Azken bi

# otokiak




ARGAZKIAK: ENEKO AZKARATE



## Landako urtegia

Urte batzuk lehenago Garaion egin zuen moduan, Landan ere bainu eremua egokitu eta mugatu zuen orain dela parte bat urte Arabako Diputazioak. 500 metroko "hondartza" eta belardi zabala ditu, aldagelak eta dutxak ere bai. Taberna eta jatetxea ere gertu ditu.



## Albinako urtegia

Ez dago Garaio eta Landa bezala bainurako prestatuta, eta ez du inolako zerbitzurik, hau da, dutxa, taberna edo aldagelarik. Hala ere, asko dira hara egun-pasa joaten direnak, toki trankila eta gerizpe askokoa baita. Bainua hartzea baimenduta dago.



## Usako erreka

Oñatiarrak ez ezik, inguruko herrietatik ere asko joaten dira hara bainua hartzera, batez ere gazte jendea. Putzuaren inguruan, eguzkitan egoteko zelaia egokitu du Oñatiko Udalak. Era berean, bainua hartzeko ondo prestatuta dago, harmailekin e.a.

## Bailaran, labur

### ATXILOTUAK

#### Joan zen astean atxilotutako zazpitik biri leporatu diete ETAko kide izatea

Espainiako poliziak joan zen egunean Arrasaten eta Aramaion atxilotu zituen zazpi lagunetatik lau aske geratu dira eta beste hiru espetxeratu egin dituzte. Hauetako biri —Txus Goikoetxea eta Premin Sanpedro— ETAko kide izatea leporatu diete eta bestea, Natale Landa, Ekin auziagatik espetxeratzeko agindua eman du epaileak. Aske laga dituztenak hauek dira: Aitor, Gorka eta Iban Astondoa anaiak, eta Nerea Hernandez. Atxilotetengatik protesta egiteko hainbat kale agerraldi izan dira astean zehar, Arrasate eta Aramaioko udalbatzarrek mozioak onartu dituzte eta bailarako EHko alkate eta zinegotziek eta atxilotuen senideek prentsurrekoa eskaini dute atxilotetak salatzen. /ENEKO AZKARATE

### EUSKARA

#### Euskararen ofizialtasuna aldarrikatzeko manifestaziorako deia egin du EHEK

Zapatuan Gasteizen egingo den euskararen ofizialtasunaren aldeko manifestaziorako deia egin du Debagoieneko Euskal Herrian Euskarazek. Martitzenean Arrasateko udaletxean eskainitako prentsurrekoan, euskarak bizi duen zapalkuntza, "Espainiako eta Frantziako estatuen zapalkuntza", salatu zuten EHEko kideek. Manifestazioa Gasteizko Bilbo plazatik aterako da 17:30ean. Debagoienetik auto karavana joango da bertaraino. Arratsaldeko hiruretan aterako da Bergararik. Bestalde, Premin Sanpedroren senitartekoei elkartasuna adierazteko aprobetxatu zuten prentsurrekoa EHEkoek, taldeko kide baita Premin. /GORKA ETXABE

### PRESOAK

#### Domekan aske utzi zuten Jose Mari Etxanizi omenaldia egingo diote zapatuan

Jose Mari Etxaniz, 21 urte eta lau hilabete espetxean eman dituen preso bergararrari omenaldia egingo diote zapatuan Bergarako San Martin plazan 19:00etan. Omenaldia kartzelan 21 urte daramatzaten beste presoek ere egingo zaie. Omenaldi osterako, afaria iragarri dute Udaltzailek. Etxaniz domeka goizean irten zen Topaseko espetxetik (Salamanca) eta kartzela aurrean egin zioten lehenengo omenaldia lagunek, senitartekoei eta Amnistiaren Aldeko Batzordeetako kideek. Bergaran iluntzean egin zioten ongietorria bere herrikideek. /E.A.

### HEDABIDEAK

#### Goienak, Arkok eta Arrasateko Udalak lankidetzaren hitzarmena sinatu dute

Arrasateko Udalak, Arkok (Arrasate Komunikabideak) eta Goienak lankidetzaren hitzarmena sinatu zuten eguaztenean Mondragoeko udaletxean. Xabier Zubizarreta alkateak, Estepan Plazaola Goienako lehendakariak eta Joxemari Muxika Arkoko lehendakari ordeak sinatu zuten hitzarmena, argazkian ikus daitekeen moduan. Azken urteotan Arrasateko Udalak hainbat konpromiso hartu ditu herriko euskarazko komunikabideekin, eta aurrerantzean eskualdekoekin ere beste horrenbeste egingo du. /G.E.



BERGARA

GOTZAINAK INAUGURATUKO DU ELOSUKO ELIZAREN ESTALKI BERRIA

## Juan Mari Uriarte Gotzainak meza emango du domekan Elosu auzoan

*San Andres elizako estalkia berrituta, Gotzainak inauguratuko du*

MONIKA BELASTEGI

**Inaugurazioa domekan izango da, Gotzaiak 12:30ean emango duen mezarekin. Bestalde, abadetxea ere berritu berri dute. Lan horiek, baina, hainbat auzotar eta lagunek egin dituzte auzolanean.**

Abuztuan hasi ziren Elosuko San Andres de Iraun elizako estalkia konpontzen. Denboraren poderioz hondatuta zegoen. Hainbat itogin zituen eta ondorioz barrualdea ere kaltetzen ari zen. Lanak hemezortzi milioiko aurrekontua izan dute, eta Diputazioa (%70), Gotzaindegia eta Bergara eta Azkoitiko Udalak egin dira horren kargu.

Esan bezala lanak amaituta, Juan Maria Uriarte Gotzainak meza emango du domekan, hilak 24, 12:30ean. Ondoren auzotarrendako luntxa ere izango da inaugurazio ekitaldi gisa.

### ABADETXEA AUZOLANEAN

Aipatu estalkiak hiru gunetatzen ditu: eliza, elizataria eta abadetxea. Estalkiarekin bate-



Estalkian zeuden itoginengatik, eliza barrua hondatzen hasita zegoen. MONIKA BELASTEGI

ra, abadetxea ere konpondu dute. Ez, baina, instituzioen laguntzaz, auzolanean, baizik. Hainbat hila-betetan, 70 lagun inguruk, astebururo lanean jardun dute abadetxea guztiz berritu arte.

Abadetxea azken urteotan aterpetxe izan da hainbat ikasketxe edota taldek egindako irte-eretak. Xabier Azkoitia parrokoaren arabera, auzolanean jardunda, berritze lanak merkeago egin ahal izan dituzte, eta ondorioz, abadetxearen alokairua ere

merkea izango da.

Estalkia eta abadetxeaz gain, elizaren kanpandorra eta elizataria ere konpontzeko asmoa dutela azaldu du Azkoitia parrokoak. Proiektua eginda dago eta aurrekontua hogeita zazpi milioi pezetakoa da. Hala eta guztiz ere, Foru Aldundiak eta Bergara eta Azkoitiko Udalek ez dute dirulaguntzarik oraindik onartu. Nahiz eta parrokoaren arabera, aipatutako konponketak begi onez ikusten dituzten.

ANTZUOLA

HASI DIRA JAIAK

## Gaur gauean bertan hasiko dituzte jaiak Kalebarrenen

*San Juan eguna ospatuko dute Uzarragan*

AINTZANE IRIZAR

Kalebarrenen jaiak emango die hasiera Antzulako uda parteko jaiari. Gaur iluntzeko 21:00etan jaurtiko dituzten itxar-floerok hasiko dituzte San Pedroak. San Pedro eguna hilaren 29an den arren, San Martzialekin bat ez egiteko astebete aurreratu ohi dituzte jaiak Kalebarrenen. 22:30ean, erromeria egongo da Eibarko trikitilarietara. Zapatuan, goizeko 11:00etan marrazki lehiaketa egongo da, eta 12:00etan ginkana Zurrategin. Arratsaldean, 18:00etan, Kakax, Kokox eta Kirriki pailazoen ikuskizuna egongo da umeendako. Zuhaitza ere jasoko dute, ohiturari jarraituz. 19:45ean izango da hori, eta herriko zuhaitza jasotzea, berriz, plazan izango da 20:30ean. 21:00etan auzo afaria egingo dute, eta ondoren dantzarako aukera ere egongo da Amalur taldearekin. Domekan ere egongo da ekitaldirik. Besteak beste, arratsaldean, disko-terka bilakatuko dute

Zurrategi plaza, Bidusound-ekoek. Musika ezberdinaz gozatzen aukera, beraz, umeendako batez ere. Uzarragan, berriz, San Juan eguna ospatuko dute domekan. Egurdiko 12:00etan meza egongo da, eta ondoren herriko dantzarien emanaldia egongo da. Joaten direnendako, luntxa ere egongo da.

### GIZARTE ETXEAREN PROIEKTUA IKUSGAI

Zapatuan eta domekan, hilak 23 eta 24, Gizarte Etxea izango denaren planoak ikusgai egongo dira udaletxeko osoko bilkuren artoan. Martxoko osoko bilkuran onartu zuten proiektua, eta uda ostean lanekin hastea espero dute udal arduradunek.

Bien bitartean, herritarrei proiektua erakutsi nahi izan die udalak. Gizarte Etxeak izango dituen sei solairuen planoak ikusi ahal izango dituzte bertaratzen direnek. Gainera, erakusketan, udaleko arduradun bat egongo da, beharrezkoak diren azalpenak eta informazioa emateko.

### Zertzelada

**Uzarragan San Juan eguna ospatuko dute domekan. 12:00etan meza egongo da, eta ondoren dantzariak arituko dira. Luntxa ere egongo da.**

ESKORIATZA

BABESTUTAKO ETXEBIZITZA BERRIAK

## Babes ofizialeko etxeak egingo dituzte Intxaurtxueta auzoan

GORKA ETXABE

Eskoriatzako Udalak eta Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailak lankidetzaz hitzarmena sinatuko dute laster. Horren ondorioz, Jaurlaritzak babes ofizialeko 16 etxebizitza egingo ditu Eskoriatzan, Intxaurtxueta auzoan.

Debagoieneko beste hainbat herritan ere horrelako akordioak sinatu dituzte Jaurlaritzak eta udalek. Azkenak, Aretxabaletan eta Arrasaten. Eskoriatzan

laster hitzartuko da lankidetzaz, baina oraindik zehaztu gabe dago noizko egingo diren etxebizitza horiek. Eskoriatzako Udalak, Intxaurtxueta auzoko lursaila Jaurlaritzari ematea onartu du, eta horren ondorioz, Etxebide erakundea arduratuko da guztiaz.

Babes ofizialeko etxebizitza horien artean, sozialak ere izango dira, eta udalak nahi du alokairu eran ere etxebizitzaren bat izatea. Oraindik, baina, hori guztia zehaztu gabe dago.



Orain dela gutxi hitzartu zuten etxebizitzak egitea Arrasaten.

SAIOA OJANGUREN

OÑATI

ESKRITURAK ETA GILTZAK PREST

## Hamaika etxebizitza sozial erosi dizkio udalak Etxebideri gaur

*Horietatik, lau etxebizitza tutelatu moduan erabiliko dituzte*

AINTZANE IRIZAR

Atzo iluntzean ziren osoko bilkura egitekoak, etxebizitzaren erosketari onartu eta alkateari ahalmena emateko. Izan ere, Etxebidekoek gaur, egubakoitza, zuten hitzordua babestutako 12 etxebizitzaren jabeekin, eskriturak sinatu eta giltzak emateko. Bide batez, gainerako 11 etxebizitzak salduko dizkio gaur bertan udalari.

Martxoan zozkatu zituen Etxebideko babestutako etxebizitzak. Orain, udalak erositako 11 etxebizitzetako zazpi alokairuan jarriko ditu. Horretarako behin-behineko zerrenda osatuta dago udalean, eta laster izango dute behin betikoa. Kasu honetan, baina, ez dute zozketarik egingo; aurrez adostutako irizpideen arabera adjudikatuko dituzte alokairurako gordetako etxebizitzak.

### ETXEBIZITZA TUTELATUAK

Udalaren esku geratuko diren gainerako lau etxebizitzetako gainera, berriz, etxebizitza tute-



Gaur bertan datoz Etxebidekoak eskriturak sinatzera.

AINTZANE IRIZAR

latu moduan erabiliko dituzte. Horretarako, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizartekintzarekin hitzarmena sinatuko du udalak. Etxebizitza tutelatuak Foru Aldundiak beharritan ekonomiko zein sozialak dituztenentzat bultzatzen duen irtenbidea da. Oñatiko lau etxebizitzaren kasuan, adinduendako izango dira etxe-

bizitza horiek. Orain, etxebizitzak adjudikatze erabiliko dituzten prozedura eta irizpideak markatzen dihardute Gizarte Zerbitzukoek, Gizartekintzarekin lankidetzan. Tutoretza horrek, gainera, beste beharritan batzuk lortu ahal izateko bidea ere ematen du, etxebizitzaz gain.

ARETXABALETA

SKATE PARKEA EGINGO DA

## Udaleko kirol zerbitzuak skatean ibiltzeko parkea egingo du herrian

AMAGOIA LASAGABASTER

Herrian zaletasun handia dago skatean ibiltzeko. Gazte talde batek behin eta berriz egin du skate parke bat egiteko eskaera udal txean. Hori dela-eta, udal kirol zerbitzuak proiektua egitea erabaki zuen. Horretarako, era honetako parkeak egiten aditua den Kataluniako enpresa batekin jarri zen harremanetan. Eta honek aurkeztu du dagoeneko proiektua.

Skate edo patinean ibiltzeko parkea Santa Kurtz kalearen behealdean egingo dute. Azuzne honen atzealdean, lehengo trenbide zaharraren ondoren, jolasleku eta lorategiak egin zituzten duela urte batzuk. Orain, berdegune horietako bat aprobetxatuz egingo dute patinean ibiltzeko parkea.

Skatea praktikatzeke parkeak 23 metro luze eta 18 metro zabal izango du. Laukian, honako bost tramankuluak jarri-

ko dituzte: Bi "pipe" laurden, baranda txiki bat, arrapala eta salto egiteko tranpolina.

Lanak hilabete honen bukaeran hasiko dira eta bi aste iraungo dute. Uztailaren lehenengo asterako, beraz, parkea eginda izatea espero du udal kirol zerbitzuak. Izan ere, kirol teknikariaren esanetan, neska-mutilek eskolak bukatzen dituztenerako prest eduki nahi dute parke berria.

Proiektu hau gauzatzeko, lehenengo lurra egokitu behar dute. Horretarako, beharrezkoa izango da parkea jarriko duten berdegunean aldaketak egitea. Besteak beste, gaur egun inguru horretan dauden bi zuhaitz kendu eta beste tokiren batean jarriko dituzte. Horrez gain, garrantzitsua izango da lurra maila berdinean jartzea. Gero zementua botako diote gainean. Aurrekontuari dago-kionez, udalak bi milioi eta erdi pasa gastatuko ditu.

**Zertzelada**

**Skate parkea Santa Kurtz kalearen atzealdean dagoen berdegune batean egingo dute, eta guztira gazteak patinean ibili ahal izateko bost tramankulu jarriko dituzte.**

ARRASATE

EGITAMU OROKORRA

## Herriaren antolamendua zehaztuko duen Egitamu Orokorra onartu dute

*Etxebizitzak, azpiegiturak eta hirigunea berritzea aurrez ikusi du*

UBANE MADERA

Eztabaida luzea izan zuten Arrasateko Udaleko zinegotziek Egitamu Orokorren gainean, baina, azkenean, hasiera batean onartu dute, EHren, EBren eta EAren aldeko botoekin eta PSE-EEren, PPren eta EAJren kontrakoekin.

Hortaz, datozen zortzi urteotan herrian izango diren aldaketak eta hazkunde modu antolatua eta ordenatua egiteko irizpideak zehaztu ditu udalak, horixe da eta Egitamu Orokorren helburua.

**ETXEBIZITZA GEHIAGO**

Horretarako, herriaren egoera zein den aztertu eta, horren arabera, herriak dituen beharrak zehaztu dituzte. Hala, ikusi dituzten behar nagusiak, besteak beste, honakoak dira: etxebizitza premia (babes ofizialekoak zein pribatuak; 2.000 bat egiteko asmoa dute), jarduera ekonomikoetarako lurzoru beharra, Garaia egitasmoa betetzea, azpiegitura berriak (Eibar-Gasteiz autobidea, mendebaleko saihebidia eta LHT) eta, oro har, hirigunea eraberritzea; izan ere, herriak hazkunde handia izan du industrializazio



Lehengo Zerrajerako orubeetan etxe berriak egingo dituzte.

UBANE MADERA

garia eta garai hartan hainbat jarduera kontrol handiegirik gabe finkatu ziren herrian. Orain, hori konpondu beharra ikusi du udalak. Horrekin batera, motorrik gabekoendako bide-sarea eta industria txikiak (obretako hondakinak gordetzeko biltegiak...) zein etxebizitza txikiak (elkarri lotutako etxeak...) eraikitzeke premia ere ikusten du. Lur azpiko aparkalekuak egitea ere jasotzen da egitamuan, baita motor-dunentzako bideetan hobekun-

tzak egitea ere eta Aldai hilerria parke bihurtzea, besteak beste.

**ALEGAZIOAK**

Orain, Egitamu Orokorra jendaurrean jarriko dute alegazioak egin ahal izateko; azaroaren 9a arte dago horretarako. Horrez gain, irailaren 13tik urriaren 13a artean erakusketa egingo dute Monterronen herritar guztientzako eta, horrekin batera, herri-tarrek egitamuaren gaineko esku-orria ere jasoko dute etxean.

ARAMAIO

DENA PREST SAN MARTIN JAIETARAKO

## Balkoi lehiaketa eta motozerra erakustaldia izango dira jaietan

UBANE MADERA

Hilaren amaierak San Martin jaiak ekartzen ditu Aramaiora; eta aurtengoak ere gertu daude, txupinazoaren zain. Egubakoitzean (29an) izango da hori, 18:55ean. Pregoia irakurriko dute segidan eta gero, kartel eta balkoi lehiaketetako sariak banatuko dituzte. Astebete geratzen da oraindik, baina jai egitarauaren zertzelada nagusiak zuzenazko moduan gaude.

**BALKOI LEHIAKETA**

Lehiaketa horrek itxuririk politena erakusten duen balkoia sarituko du. Aspaldiko partez, aurten berreskuratu duten ekitaldia da, herriko emakume taldeak antolatuta.

Biharamunean, berriz, besteak beste, motozerra erakustal-

dia izango da 18:00etan. Berastegitik etorritako hirukoteak egurrezko irudiak landuko ditu motozerrekin. Eguna amaitzeko, bestelako ekitaldien artean, Joselu Anaiek alaitutako erromeria ere izango da.

Astebeteko atsedena eta gero, domekan jarraituko dute jaiak. Herriko dantza taldeak eta txistulariak arituko dira eguerdira arte, eta gero gaiteroi paso emango diete. Haurrendako parkea,

plater-tiraketa, txaranga eta bertsolariak ere izango dira, eta gauean Sorbeltz taldearen erromeria egongo da. Jaiei amaiera emateko, besteak beste, astelehenan herri afaria izango da 21:30ean eta Irailera 6 taldearen emanaldia gauean. Eta, ekitaldi horietaz gain, txosnen gauean ere jai-gunea antolatu nahi dute.

**Zertzelada**

**Aspaldiko partez, aurten berreskuratu duten ekitaldia da balkoi lehiaketa, herriko emakume taldeak antolatuta. Bestalde, motozerra lehiaketa ere izango da.**

ELGETA

KIROLDEGIA LEHIAKETARA

## Bolatoki taberna-jatetxea eta kiroldegia zeinek hartuko zain

*Jatetxearekin batera kirol instalazioak ere aterako dituzte lehiaketara*

IBAN ARANTZABAL

Udal kiroldegiko instalazioei erantsitako Bolatoki taberna-jatetxea eta kiroldegiko instalazioak ustiatzeko gogoia izanez gero, zabalik da izena emateko epea.

Orain arte tabernaz ardura-tu diren bi familiek abuztuaren 7an itxiko dituzte tabernaren atak eta abuztuaren beti egiten duten moduan, oporrak hartuko dituzte. Irailean ikusiko dugu nork eramango duen bai jatetxe, bai frontoi baita kiroldegiaren ardura ere.

Udalak bi urterako eman gura die kiroldegia aurkezten direnei eta urtero luzatu ahal izango da, gehienez ere bost urte arte. Lizitazioa edozein aurkeztu daiteke eta horretarako aurrez 125.000 pezetako fidantza jarri behar du. Lizitazioaren oinarria, hilabeteko, 35.000 pezeta izango da.

Egoitza hori hartzen dutenen gain egongo dira pilotalekua,

aldagelak, squasha, gimnasioa, kanpoko pista, umeen parkea... eta udalak ezarritako Kirol Zerbitzuko erregelamendua bete eta gainerakoei betearaztea ere.

Lehiaketara aurkeztu gura duenak Elgetako Udaleko erregistro orokorrean aurkeztu behar du proposamenak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean

argitaratzen den biharamunetik hasita 20 eguneko epean.

Lehiaketa gutun itxien bidez egingo da eta interesa duenak pleguan agertzen diren baldintzekiko hobekuntzak eta urteko zenbat pezeta ordainduko lituzkeen jarri behar du. Lehiaketa horren gaineko berri gehiago udal txean eska daiteke.

Erdiko Kale, 32  
ARRASATE  
Tel.: 943 79 16 12

**Gizonak Emakumeak**

**JANTZIAK**

Ibai-arteren bazkide

## Zabalik

MARKOS  
BALENTZIAGAEz dok 13  
maiatzean

**E**z dogu errez ahaztekoa maiatzaren 13 dontsua-ren ingurua. Ointxe eta ointxe be analista batzuen pentsabidiari erreparau eta galdetu be egin leike: ba ote jakixek elekziñuok 2001eko maiatzaren 13an izan zirala, ala oraindio eitteko dirala uste juek?

Halabiharrian be, baña, badira aztertzaila zorrotzak, badira elekziñuak 2001eko maiatzaren 13an izan zirala ondo be ondo dakixenak; Fernando Savater da horretariko bat, berbatarako; horregatik idatzi zeban don Fernandok "Alavesek UEFAn egin dabena egin giñuan: bigarren indar geratu giñan".

Baña galtziak adimena lausotzeko eta tripetako nahieza eragitteko arriskua be badau, baita Aznarrentzat berarentzat be. Eta halakuan ondorenak oso begi-bistakua izaten dira: Aznarrek, adibidez, ez ote zeban hobe gure heldutasunik ezaren gorabeherak bake-bakian laga eta mantzanillia hartzia edota tai-chi saio errelaxante bat egittia?

Ramon Saizarbitoria idazle bikaiñak, hauteskundiak egin baño astebete lehentxoago, preguntez zeban periodistiari erantzun zotsan: "Zergatik ez dotsat sinistuko Mayor Orejari, irabazten badabe, euskaldunekin begiramen osoz jokatu dabela esaten dabengan?" Irabazle ustekuen begiramen kiñua izan ete zan Alavaesen eta Liverpoolen arteko UEFAko futbol finala TVEk euskaraz be emon izana maiatzaren 16xan?


Jun daneko dozena erdi urte inguru honetan PPko gobernuak bere esku dauka TVE eta, ondorioz, euskaldunoi eten be egin barik begikotasun kiñuak egitteko aukeria baña, entzuna dodanez, euskaraz emondako partiduen akordia oso motza da euskaldun futbolzalien artian.

Azkenik, zergatik pasatu da hain ixilik Bernardo Atxagak bere botua IU-EBren aldekoa zala jendaera zabaldu izana? Ika-mika politikoan hain ondo entrenauta dagoen herri honetan harrigarrixa da euskal literaturako lumadun ezagunenak egindako aukerriak jardukizunik ixa bat bera be eragin ez izana.

## Gutunak

Ahalik eta iritzi gehienek izan dezaten tokia, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izanez gero, GOIENKARIAK bere esku du horretarako eskubidea.

Zure iritzia helarazteko:  
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA  
Telefonoa: 943 76 92 72  
Faxa: 943 76 29 77  
Posta-e: iritzia@goiena.com



## Elgetako aurrekontuak

**E**lgetako EHk 2001. urteko aurrekontuei ezetza emateko arrazoiak zeintzuk izan diren adierazi nahi dizue herritarroi.

Udaletxean EH gobernuan dago, baina aurrekontuak egiterakoan badirudi ez dela horrela. Aurrekontuak ekainaren 5eko plenoan eztabaidatu ziren, guk maiatzaren 25a arte ez dugu izan informaziorik beraiei buruz. 5 edo 6 hilabetetan egin diren aurrekontu batzuk astebetean azterzea ezinezkoa dela uste dugu. EAJ-EAK ez du gurekin bilera bakar bat ere egin denbora guzti horretan. Gure batzordeetan guk aurkeztutako aurrekontuak ere ez ditugu elkarrekin eztabaidatu bi taldeok, eta zati handi batean ez dituzte kontuan hartu.

Kulturan, gure proposamenak, Goiena bultzatzea, behingoz GOITB ikus dezagun, UEMAN sartzea, Espaloia aretoa zertxobait egokitzea, edozein taldek ekitaldi kulturalerako erabiltzeko modu egokian eta baita udaletxeak zerbitzu kultural egokia eskaintzeko herriari.

Baserritarrak: Eztabaida ez da kamioiak bideetatik pasatzeagaitik zergak ordaindu behar duten edo ez, hori ordaindu beharra dute udaletxeko ordenantzek horrela diotelako. Eztabaida diru hori nola reinbertitu behar den da. (Iaz 400.000 pezeta batu ziren eta aurtan ia 200.000 pezeta oraingoz). Batutakoa berriro bideak konpontzeko izan behar dela erabaki zuten batzordean baserritarrek, baina aurrekontuetan ez dago horretarako partidariak.

Bestalde, aurrekontuen zati handi bat pertsonaleko gastuetan joaten da, guretzat gehiegizkoa dena: %35, aipatzekoa alkatearen soldata gehiegizkoa iruditzen zaigula gurea bezalako herri batean.

Bukatzeko, penagarria da herriko aurrekontuak eztabaidatu behar diren plenoan inor ez egotea, ez inongo elkarteko ordezkariarik ezta inongo kazetaririk ere.

EUSKAL HERRITARROK  
Elgeta

Euskal komunikazio  
esparrua babestu eta  
indartu

**E**z ditugu une gozoak bizi euskal ikuspegiarekin dihardugun euskal komunikabideek. Egin, Egin Irratia eta Ardi Beltza itxita, Jon Abril kazetaria auzipetua, Euskalerria Irratia lizentzia legalik gabe, eta orain Euskaldunon Egunkaria eta Gararen kontrako eraso judizialarena jakin dugu. ETARI egindako elkarrizketa aitzakia, Euskal Herrian bertotik informazioa lantzen dugun komunikabideon jardun profesionala jarri nahi dute auzitan. Martxelo Otamendi eta Mertxe Aizpurua, eta hauek zuzentzen dituzten komunikabideen kontra Espainiako Entzutegi Nazionalan jarritako kereilak, informazioa eman eta jasotzeko herritarrek duten eskubidea urratzen du.

Bizi dugun gatazkan ETAREN ikuspegia ezagutzeak interes informatibo nabarmena dauka, eta horrela erakutsi dute Euskal Herrian eta atzerrian berria zabal jaso duten ehunka komunikabideek. Horrela erakutsi dute hainbat erreazio izan dituzten instituzio eta alderdiek. Agerikoa denez, horrek ez du elkarrizketa argitaratu duten komunikabideen jarrera jakin bat azaltzen, irakurleak jakingo du esandakotik bere iritzi eta ondorioak ateratzen. Informazio objektiboa eskaintzea ez da delitua, irakurle eta komunikabideek legez aitortua duten eskubidea baizik.

Gertatutakoek, eta honen inguruan argitaratu diren hainbat iritzik, Egunkaria eta oro har euskal esparruko komunikazioa jotzeko eta isilarazteko asmoa erakusten dute, lehen beste komunikabide batzuekin edota euskalgintzan diharduten hainbat erakundekin egin den modu berean. Horregatik, guztion artean euskal komunikazio esparrua babestu eta indartzeko premia dugu.

Euskalgintzaren ikuspegitik, Nafarroako Gobernuak euskararen kontra darman kanpaina, edo Iruñeko Udalak Egunkariatik publizitate guztia erretiratzea ez dira kasu isolatuak, aldez aurretik finkatutako jokabidea baizik. Komunikabide honi, irudi jakin batekin lotu izanagatik, bere ospean eta publizitate merkatuan kalte eragin nahi izana ez da bidezkoa. Gure hizkuntzak bizi duen egoeran Egunkaria zein euskalgintzan diharduten beste erakundeak amildegi bidean jartzeak euskarari eta Euskal Herriari kalte atzerazinak eragin ahal dizkie. Gaur Egunkaria eta Gararen txanda izan da, bihar beste batzuk, euskalgintza zein herri komunikazioan dabilen beste edozeinena izan daiteke.

Garaiz gaude elkarlana bultzatu eta euskal komunikazio esparrua artikulatzeko, presarik gabe baina lo hartu barik. Euskal komunikabideak ezinbestekoak ditugu. Irakur, entzun eta ikus itzazu.

ARANTZAZU FERNANDEZ DE ARROIABE  
MIKEL LIZARRALDE  
EGUNKARIAKO LANGILEAK

## Gauzak argitu nahian

**J**oan zen asteko Goienkarian, "Herri Herri" sailean, Arrasateri buruzko albistean, Udalak isunak jarri dizkien tabernen gaineko berria irakurri nuen. Bertan aipatzen zen Arrasateko Udalak lau tabernariri isunak jarri dizkiela eta zigortutakoen artean Doke agertzen zen. Zera argitu nahi dut: orain dela urtebete inguru hartu nuen Doke taberna eta niri ez didate isunik jarri. Nik dakidala, bai, ordea, nire aurretik tabernako jabea zenari. Hori argitu nahi nuen, besterik ez.

ENRIQUE ESPARZA, DOKE TABERNAKO  
Arrasate

## Eskerrik asko

**H**onorio Agirregabiriaren familiak San Antonio auzoari eskerrak eman nahi dizkio Honoriori eskainitako omenaldigatik. Eskerrak bereziki Gure Ametsa elkarteari eta Patxi Uribesalgori.

AGIRREGABIRIA FAMILIA  
Bergara

## Olatz eta Patxi

MIKEL ARROIABE



## Eztabaida

Aurreko hamarkadako urte askotan zehar eskutik helduta joan dira Euskal Herriko bi sindikatu nagusiak, ELA eta LAB. Ekintza sindikal bateratua jorratu

dute eta gehiengo sindikal bilakatu dira. Ez hori bakarrik, Lizarra-Garaziko Akordioan zeresan handia eduki zuten bi sindikatuok. Azkenaldian, ordea, banatuta dabilta,

bakoitza bere aldetik, hika-miketan murgilduta, Elorrieta eta Diez. Baina, zerk oztopatzen du bi sindikatuon arteko lankidetzat? Horixe da aste honetako galdera.

# Zerk oztopatzen du ELA eta LAB sindikatuen arteko lankidetzat?

## Autonomia eza eta eredu sindikal kontrajarriak



LEIRE  
TXAKARTEGI  
ELA

Azken urteotako ELA eta LABen arteko elkarlana oso aberasgarria izan da gure erakundearentzat, eta balorazio positiboa egiten dugu. Maila politikoan Lizarra-Garaziko eszenatik iristeko bi sindikatuen arteko ibilbideak izan zuen garrantzia, eta maila sozialean kontrabotere gisa arituko zen gehiengo sindikal indartsua eratzeko aukerak, balore handia eman zion alianztzari.

Gaur egun ELA eta LABen arteko lan bateratua apurtuta dago, eta ekintza sindikalean beharrezkoak diren gutxieneko harremanak ditugu soilik. Zerk oztopatzen du sakoneko elkarlana?

Bi arazo nagusi ditugula esan dezakegu:

Lehenengoa, eta ez garrantzitsuena, LABen ezker abertzalearen diagnostiko eta estrategia politikoarekiko autonomiarik eza da. ETAREN su-etenaren ostean zabalduakotako aldi politikoak elkarlana indartzeko aukera ezin hobea izan arren, lehenengo arazoak hasten dira (gogoratu adibidez, LABek Euskal Autonomia Erkidegoko Funtzio Publikoko Akordioa, CCOOekin batera minorian sinatu zuela). ELAren iritziz, LABek, bere proiektua ELAren alternatiba bezala zabaltzeko aukera ikusi zuen, eta konpetentzia elementuei nagusitasuna eman zien, faktore konbergenteen aurrean. Tregoaren bukaerarekin, arazoa areagotu egin zen, LABek Ezker Abertzalearen inboluzio politikoaren aurrean ez baitzuen inolako jarrera autonomorik erakutsi.

Bigarrena, ekintza sindikala eta batez ere, 2001.eko negoziazio kolektiboan bi sindikatuok erakutsitako eredu sindikal kontrajarriak. 2001.eko negoziazio kolektiboak garrantzi handia izan du gure sindikatuarentzat, enpleguari buruzko kanpainen (gogoratu 99.eko maiatzaren 21.eko greba) aldarrikatutako eskaerak (batez ere enplegua sortzeko lan orduen murrizketa garrantzitsuak) praktikan jartzeko lehenengo aukera erreala baitzen aurtengoa.

Sektore eta enpresa garrantzitsuetako negoziazioan (hala nola, Gipuzkoako Metala, Papera, Arte Grafikoak...) hazkunde ekonomikoko egoera honetan guztiz eskasak diren konbenioak sinatu ditu LABek, eta bi sindikatuen artean adostutako gutxieneko eduki eta estrategiak euren aldetik apurtu ditu.

Eredu sindikalean, eta honen osagai garrantzitsuena den negoziazio kolektiboan ez bagara gauza estrategia bateratu bat garatzeko, zer zentzu dauka beste maila batzuetan iturrazko elkarlan bat mantentzea? Gure ustez, elkarlan sindikalak zutabe sendagoetan oinarritu behar du.

## Su-etenak ez zuen ekarri ekintza batasunaren galera



GARBIÑE  
ARANBURU  
LAB

Maiatzaren lehenaren atarian, ELAK, ezberdintasun politiko eta sindikalak argudiatuz, LABen eta ELAren arteko elkarlanaren haustura aldarrikatu zuen. Bi sindikatuen arteko harremanek bi fase izan dituzte: 1993tik 1998ra artekoa eta 1999tik aurrerakoa.

1993-1998 epean, ekintza batasuna eskenatoki politiko eta sindikalean erreferente eta eragile bihurtu zen. Ekimen ezberdinek, mugimendu abertzaleak aro autonomikoa amaitutzat emateko

eta Euskal Herria onartu eta subiranotasun bidean ipiniko duen proposamen politikoak eta indar metaketak egiteko baldintzak sortu zituzten. Dinamika bateratu horren ondorio aipagarria, 1997an ELAK Gernikan egindako ekitaldia izan zen, non Estatutua agortutzat eman zuen.

Ondoren, Lizarra-Garaziko hitzarmena eta su-etena etorri ziren. Bazirudien ELA mugitzeko baldintzak zeudela, baina gure harridurarako, su-etena aldarrikatu zenean eta ekintza batasunak subiranotasun prozesu baterako eragile bihurtzeko aukera zuenean, prozesua atzeratzea egin behar genuenean, ELA gelditu egin zen. Beraz faltsua da su-etenak ekintza batasunaren izaera soziopolitikoaren galera ekarri zuenik.

LABen eta ELAren arteko ekintza batasuna, 1999ko udan hasi zen gainbehera, su-efena oraindik indarrean zegoenean. ELAK bi sindikatuen arteko harremanetan beste elementu bat sartu zuen.

LABek publikoki adierazi du, 1997ko uztailean, ELAren partetik proposamen bat egon zen. ELAren proposamenak hiru ardatz zituen. Lehenengoa, bien arteko gestioa izango lukeen erresistentzia kutxa bat osatzea. Bigarrena, Ipar Euskal Herrirako proiektu bakarra bultzatzea. Eta, hirugarrena, formakuntzarako bi sindikatuok ditugun fundazioen lan dinamika bateratzea. Guk horri ezezkoa eman genion, baina ELAK oraindik publikoki ez du horri buruzko azalpenik eman.

Negoiazio kolektiboan ere ezadostasunak izan ditugu, ELA maila konfederalean 35 orduko lanastearen aldeko borroka alde batera utziz joan da, eta hitzarmen sektorial batzuetan izan duten jarrerak ezadostasunak areagotu egin ditu.

Honen guztiaren gainera, LABek bi erreflexio egin nahi ditu: alde batetik, ekintza batasuna aportazio garrantzitsu bat izan da. Bestetik, 93-01 fasea amaitu da eta gehiengo sindikalak beste ziklo bat zabaldu behar du. Fase berri bat lantzen hasteko ordua da. Guk, helburu horrekin sindikatuen arteko konferentzia bat osatzea proposatu dugu.

## Gora eta Behera

### JOSE MARI ETXANIZ




Barrura eraman zuen ideari hogeita bat urtez eusten dionak merezi du bai miresmena. Ea beste guztiak ere aurki ikusten ditugun gure artean eta guzti-guztien elkarlanak hain beharrezkoa dugun bakea dakarren gure herrira.

### PROGRESOAREN ALDE?



Euren poltsikoei berotu ederra emateko "progreso" hitza darabilten horiei zera galdetuko nieke: zer da ba progresoa? Guztion mendi, baso eta inguruak izorratzea apurren batzuk bost minutu irabazteko... Txikizioa geratu!



ROBERTO  
IZAGIRRE  
Bergarako  
Udaleko langilea

## Koplak

### Ongi etorri Etxaniz

Azkenean bai, ikusi dugu Etxaniz etxera heltzen, berri on hori saiatuko naiz gaur umoretsu kontatzen.

Egin zitzaion ongiatorrira ez zen bildu jende gutxi, hainbat denboran itxoin ta ia ez zioten sartzen utzi.

Emakume bat bronka botatzen ere ikusi nuen plazan bere haserre azaldu zion; "Joxe Mari ordua zan!"

Amona batek eman zizkion sei muxu denak segidan dirudienez gehiago ere igandean gutxi ziran.

Oholtza gainean ere aritu zen berriketan mobiletik lagun zaharren bat izan omen zen plazaren beste puntatik.

Azken hitzetan zorrotz jartzeko ez dut galdu nahi aukera, ordua zen bai, eta bihotzez ongi etorri etxera!!!

AINHOA AGIRREAZALDEGI

DATORREN ASTEKO EZTABAIDAGAIA

Iritzia emateko: iritzia@goiena.com

Zer iritzi duzu drogak legeztatzeari buruz?

**Goienkaria**  
DEBAGOIENENKO ASTEKARIA

ZUZENDARIA:  
Eneko Azkarate  
ERREDAKZIO KONTSEILUA  
Edorta Mendieta,  
Miguel Angel Elkoroberezar,  
Josemari Velez de Mendizabal

ADMINISTRAZIOA  
Agurtzane Gaintzarain,  
Ane Berezibar  
PUBLIZITATEA  
Arantzazu Lagunilla, Mireia  
Larrañaga, Natali Martinez,  
Izaskun Bolinaga, Ziortza Martin

SAILETAKO ARDURADUNAK  
Edu Mendibil (Kirola, Non  
Zer), Aintzane Irizar (Berri-  
Zakua), Iker Barandiaran  
(Asteko gaia)  
Goio Arana (Diseinua),  
Gotzon Arzelus (Publizitatea)

PRODUKZIOA  
Iban Arantzabal  
HARPIDETZA ETA BANAKETA  
Aitziber Langaran  
TESTUEN ZUZENKETA  
Sergio Azkarate, Gari Bragado


**Goiena**  
Komunikazio Zerbitzuak

LEHENKARIA: Estepan Plazaola  
ZUZENDARI NAGUSIA: Mikel Irizar





O fizioz Kutzako langilea izan arren, lan ugari egin ditu euskalgintzan eta, bereziki, euskarazko hedabideetan. Besteak beste, ATB eta GOITBko hainbat saiotan aurkezle, Arrasate Press-eko kolaboratzaile eta Arkoko lehendakari izandakoa da. ETBn ere ibilia da "Lengua Viva" eta "Hitzaro" saioak aurkezten. Duela bi urte bere ohiko lana utzi eta Goiena gauzatzeari ekin zion buru-belarri. Eta kooperatiba sortu ondoren, zuzendari nagusi izan da orain arte. Izan da, bai, Goienaren gidaritza laga egingo duelako datorren astean, berrito Kutzara itzultzeko.



JUAN MANUEL BERRUETA

## Mikel Irizar

GOIENAKO ZUZENDARI NAGUSIA

# "Orain dela bost urte bakarrik, gaur egungo Goiena ez zen posible izango"

### ERATZE PROZESUA

**"Eskerrak eman nahi dizkiet elkarte sortzaileei, langileei eta bazkide diren udalei, oso eskuzabalak izan direlako"**

### KOMUNITATEAREN ZERBITZURA

**"Gure produktuak ahalik eta komertzialenak izan daitezen saiatzen gara, baina gure lehen helburua gizartearen kohesioa eta komunitate zentzua garatzea da"**

kal gizarteak izan lezakeen indar tresnarik onena. Baina honek mesfidantzak ere sortzen ditu, eta hor dago arazoaren koka. Mesfidantza dagoen tokian konfiantza sortzea da konponbidea.

Badirudi azken boladan zerbait mugitzen ari dela, eta Elgeta aldetik zarata onak datoz. Poztuko nintzateke gai hau uda aurretik bideratuko balitz. Izan ere, udazkenean Goienak Batzar Nagusi garrantzizkoa egingo du, eta ona litzateke balizko bazkide guztiak han izatea.

**Beharrezkoak dira Goienarentzat erakunde publikoen diru laguntzak?**

Oraingoz ezinbestekoak. Gure aurreko hedabideek bezala, euskara hutsez dihardugu, etorkizuneko gizarte eleanitzean euskarak beste hizkuntzen pareko aukerak izan ditzan. Gainera, gure produktuak ahalik eta komertzialenak izan daitezen saiatzen gara, baina gure lehen helburua gizartearen kohesioa eta komunitate zentzua garatzea da. Balore horiekin, gure erabateko autofinantzaketa ez

dago hurbil, nahiz eta erdi ingurukoa baden eta gorantz doan. Nolanahi ere, dirulaguntzak ez ditugu eskupeko edo oparizat hartzen. Herritarrentzat mesedegarri diren zerbitzuen truke erakunde publikoek ordaintzen diguten kanona da diru hori. Zerbitzu berdinek erakundeek zuzenean eskaini behar izanez gero, hiru bider garestiago ordaindu beharko zituzten. Alde bientzat da tratua ona.

**Telebista, prentsa, irratia eta internet jorratu nahi ditu Goienak. Aipatuko zeniguke, labor-labor, zeintzuk diren arlo bakoitzaren erronkak?**

Telebistan, eskualde osora hedatzea eta hasitako digitalizazioa burutzea dira erronka hurbilak, eta gerora, profesionaltasuna eta herritarren partaidetza ondo uztartzea. Prentsan, *Goienkaria* eta herri aldizkariak formatu bateratuan ematea, laster, eta maiztasun handiagoko produktuak prestatzea gero. Irratian, eskualderako egitura sortu behar da, agian herri bakoitzean bertako irratia bultzatuz. Eta interneten, hurbiltasunaren zentzua sareatzea da erronka, errealitatean komunitate garenok sarean ere komunitate izaten jarrai dezagun. Osagai hauekin denekin, udazkenean Goienak hiruzpalau urteko plan estrategikoa prestatuko du, bere garapenaren nondik norakoak zehazteko. Etxea egiteko zimenduak ezarri dira eta materialak hor daude. Nolako etxea nahi den zehaztu behar da orain.

**Informazio lokala euskaraz jorratzen duen multimedia izaerako beste komunikazio enpresarik ezagutzen duzu, hau da, badago Goienaren modukorik?**

Gurea bezain garaturik ez. Nafarroako iparraldean, Bortzirietan, *Ttipi-ttapak* urrats politikak egin ditu. Eskualde txikia da, baina bere apalean, aldizkaria eta telebista sortu dituzte, sarean produkturik badute eta bazkideen kluba ere bai. Bestalde, Oarsoaldeko hedabideak oraintsu dabilta bateratze bidean, eta Durangaldea ere mugitzen hasi da. Aspaldiko partez mugimendu dezente nabari da, eta beti multimediarantz.

**Sarritan aipatu da Goiena eredu izan daitekeela Gipuzkoako edo Euskal Herriko beste bailara batzuetako informazio lokala lantzen duten euskarazko hedabideentzat. Benetan horrela da?**

Bai, harrokeria barik baina harrotasunez, uste dut nabari den mugimendu horren eragile printzipala Goiena izan dela. *Arrasate Press* sortu zenean bezala, ikusmin handia dago beste bailaretan hemen egiten ari garenari buruz. Eta oso ona litzateke eskualdeko komunikazio talde sendoak sortzea, horizontalean beraian artean eta bertikalean euskarazko hedabide nazionalekin jardungo dutenak. Kanpotik eta erdara ezberdinetan iritsiko zaigun uholdearen aurrean, euskal gizartearen bizi-raupenerako sekulako tresna litzateke hori.

**Goiena komunikazio enpresa bat dela esan dugu, kooperatiba elkarte hain zuzen ere. Zergatik kooperatiba?**

Goiena eskualdeko euskara elkarteek sortu zuten, baina langileak bazkide nahi genituen, baita udalak eta enpresak ere. Askotariko egitura behar genuen, beraz. Gainera, bestelako baliabide handirik ez eta lankidetzeta hartu dugu zutoin nagusi. Bi osagai horiek, Debagoienean, kooperatiba emango dute, hamarretik hamarretan.

**Ia bi urte eman dituzu Goienan. Gustura egindako lanagatik?**

Hartu nuen tokitik aurrerago uzten dut lekukoa, hori da nire poza. Arantza aipatu dut lehen, baina Goienan gehiena arrosak izan dira. Harrera abegikorra egin didate non-nahi, eskualdea ondo ezagutu ahal izan dut eta lagun asko egin dut bidean. Kutzara itzultzeko ordua iritsi zait, baina Goienakoa izango naiz beti.

ENKO AZKARATE

Ezinbestean itzuli egin behar?

Bai, aurrez ikusitako epea bete da, eta orain nitzakeenak eman ditut. Oso lan gusagarria izan da, baina nekagarria ere bai. Orain oporrak aprobetxatuko ditut atsegin hartzeko, eta ondoren Kutzara.

**1999an Goiena egitasmoan murgildu zinenen aurrez ikusten zenuen 2001eko ekainean Goiena egoera honetan egongo zela?**

Ez. Hasierako une haietan Goienaren premia ikusten genuen, eta ahalegina egiteko asmo sendoa ere bagenuen, baina orain iritsiko ginen ikuskizun zegoen. Aurrez herrietako komunikabideen lana oso ona zen, eta hortik abiatu ginen. Bi urte geroago, lehengo hedabideak bateratuta daude eta berriak sortu dira, lantalde bakarra osatu da, herrien arteko sare ezartzen ari gara eta tresneria goitik behera berritzen. Beraz, badago eskualdean multimedia indartsua garatzeko sinarrria.

Eta hau guztia, adostasunez egin da. Prozesu osoan ez da botazio bakar bat ere behar izan. Horregatik, eskerrak eman nahi dizkiet elkarte sortzaileei, langileei eta bazkide diren udalei, oso eskuzabalak izan direlako. Era berean, lagungarri izan da eskualdeko herrien gainetik esparru funtzional bihurtzeko duen joera, hemen bateratze dinamikak oso indartsuak dira. Duela bost urte bakarrik, gaurko Goiena ez zen posible izango. Ziur nago.

**Goiena bailara osorako egitasmoa da, baina ezin izan da herri denetan garatu. Goiena Telebista, esaterako ez da ikusten herri batzuetan. Zergatik da hori?**

Telebistaren hedapenerako badago arazo teknikorik. Bergaraldean San Mixelko dorrea erabili behar da, eta Oñatin Belarkoa. Hauek Jaurilaritzarenak dira eta oraingoz ez dugu erabiltzeko baimenik gero.

Hala ere, arazoa ez da teknikoa soilik. Bergara, Oñati eta Elgetako Udalak ez dira oraindik Goienara bildu, eta hau da bi urteko utzi didaten arantza. Ez gara —edo ez gaizto gauza izan hauen parte hartzea lortzeko. Goienaren oinarriko ideia gizarte ekonomia eta erakundearen ahalmena sendotzeko da, bera ikusten dugulako eus-


# Bergara Hiria pilota torneoko finalak erabakita

Mikel-Casado eta Larraia-Navarro bikoteak seniorretan eta Errea-Jauregi eta Erroizenea-Oteiza promesatan

**B**ergarako udal pilotalekuan jokatu dira finalak datorren martitzenean, zazpi eta erdietatik aurrera. Lehenengo partiduan, promesa mailan, Errea eta Jauregik Erroizenea eta Oteizaren aurka neurtuko dituzte indarrak. Bigarrean, berriz, senior mailan, Mikel eta Casadok Larraia eta Navarro izango dituzte aurkari. Azken bikote horrek pasa den martitzenean lortu zuen final handirako txartela Castellanos eta Gutierrez gaindituta. Igor Gutierrez Uberako atzelariak partida ona jokatu zuen, baina azken txanpan bikote nafarra nagusi izan zen.

## DEBAGOIENDARRIK EZ SENIORREN FINALEAN

Julen Castellanos eta Igor Gutierrezek ongi ekin zioten norgehiagokari; sei eta huts aurreratu ziren. Larraia eta Navarrok erreakzionatu eta seina berdintzea lortu zuten. Gipuzkoarrek berriz ere tartea lortu zuten markagailuan, 11 eta 7. Nafarrek, ordea, ez zuten amore eman eta hamaikana berdintzea lortu zuten. Hamahirunako besarkadaren ostean, Larraia eta Navarrok osatutako bikoteak pilota aldatu zuten. Hortxe egon zen partidaren gakoa. Bikote irabazlea 21 eta 14 aurreratu zen eta Castellanos eta Gutierrez bikoteak beste bi tanto baino ezin izan zuten egin. Bukieran, 22 eta 16 Larraia eta Navaroren alde. Ondorioz,



Larraiak eta Navarrok Castellanos-Gutierrez bikoteari irabazi zioten finalerdietan.

EDU MENDIBIL

bikote nafarrak finalerako txartela lortu zuen. Datorren martitzenean jokatu duten finalean Mikel eta Casado izango dituzte aurkari. Bergara Hiria torneoa seigarren aldia izango da jokoan. Ikusi egin behar nork hartuko duen Mikel eta Albizuri iazko garaileen lekukoa.

Duela bi aste jokatu zen seniorren beste finalerdian, beste bergarar bat izan genuen lehian. Ander Muguruza, hain zuzen ere. Bergarako aurrelariak Koldo Mendiluze lagun zuela ezin izan zuten ezer egin Mikel eta Casa-



GOITBk eguaztenean eskainiko ditu finalak.

EDU MENDIBIL

doren aurrean. 22 eta 11ko emaitzak partiduan gertatukoak izatzen du.

Promesatan Migel Anjel Erreak eta Iñaki Jauregik eta Jabier Erroizeneak eta Oteizak jokatu dute finala. Irgan asteartean jokatu finalerdian Errea nafarrak eta Jauregi plaentziarrak 22 eta 19 hartu zituzten mendean Vicente eta Torres gasteizarrak, kostata izan bazen ere. Promesa mailako beste finalerdian Erroizenea eta Oteizak ez zuten hainbeste sufritu behar izan Moran eta Gurrutxagari irabazteko.

## FINALAK GOITBn IKUSGAI

Gogoratu Bergara Hiria torneoko final handiak datorren martitzenean jokatu direla Bergarako udal pilotalekuan. Baina, joaterik ez duzenok, asteazkenean izango duzue bi partidak oso-osorik Goiena Telebistan ikusteko aukera, gaueko 21:00etatik aurrera.

## ELGETAN FINALERDIK

Elgetako lau eta erdiko txapelketa prestigiotsua dagoeneko finalerdietan da. Gaur gaueko 20:00etatik aurrera Elgetako pilotalekuan jokatu dira finalerdia. Alde batetik Ander Agesta arantzarrak Xabier Ubera elgetarra izango du aurkari. Bestetik, Oinatz Bengoetxeak Lemoako Leitza pilotariaren aurka jokatu du.

ANARTZ AGIRRE

# Txirrindularitza pasa den astebukaerako protagonista

Emakumeen Birako etapa eta San Juan eta San Antonio sariak jokatu ziren


**Z**apatu goizean jokatu zen elite eta 23 urtez azpiko afizionatuentzat San Juan saria. 150 bat txirrindulari izan ziren irteera puntuan eta 135 kilometroko ibilbidea osatu ondo dago zuten. Gatzagako gaina birritan igo zuten, eta hain zuzen ere, bigarren igoeran egin zen San Juan saria irabazteko aukerak izango zituzten 10 lagun inguruko taldetxoak. Helmugarako hamar kilometroren faltan Iker Camaño Baque taldeko santurtziarrak jo zuen eraso eta atzeko taldetxoaren adostasun falta aprobetxatuz bakarrean sartu zen Arrasateko helmugan. Bigarren sailkatua Alberto Sanchez mexikarra izan zen 8 segundora, eta hirugarren berriz, Jon del Rio 12 segundora, tropeltxari denbora eman ziola. Hain zuzen ere, tropeltxo horretan sartu zen debagoiendar onena, Asier Atxa atxabaltarra, bosgarren postuan.

## EMAKUMEEN BIRA ELGETAN

Bestalde, goi mailako txirrindularitza gozatu ahal izan zuten zapatu arratsaldean Elgetan izan ziren zaleek. Izan ere, Emakumeen Birako bigarren etapako bigarren sektorea amaitu zen bertan. Gordexolatik irten eta Elgetarako bidea egin behar izan zuten mundu guztitik etorritako txirrindulariek. Elgetako azken igoeran erabaki zen etapa. Bi txirrindulari ihes eginda heldu ziren azken metroetara eta azken esprint estuan Staurakaya bielorrusiarra gailendu zen Stiajkinari aurre hartuz. Ordu arteko liderrak, Van Moorselek maillot horiari eustea lortu zuen, eta bera izan zen XXIV. Emakumeen Birako irabazlea.

## VARELA GIPUZKOAKO TXAPELDUN

Zapatu arratsaldean jokatu zen Honorio Agirregabiriaren omeneko San Antonio saria. Gainera, jokoan zen bigarren urteko kadeteentzat Gipuzkoako Txapel-



Baque taldeko Iker Camaño santurtziarrak irabazi zuen San Juan saria.

ANARTZ AGIRRE

keta. Lasterketa hasi aurretik Honorioaren omenez minutu bateko isilunea gorde zen, eta bere alargunak zinta moztu zuen. San Antonion zegoen helmugako azken

zuzengunera bi txirrindulari iritsi ziren tropelarekiko metro batzuk hartuta, hain zuzen ere Kepa Valrela Lokatzako bergararra eta Iban Gonzalez elgoibarta-

rra. Azken esprintean bergararra nagusitu zen, eta ondorioz bera da Gipuzkoako txapelkun berria.

ANARTZ AGIRRE

Podiuma

# Agustin Aranzabal | REALEKO JOKALARIA |

**R**ealak sufrimenduz betetako denboraldiari amaiera eman zion domekan, Anoetan, Osasunaren kontra. Ligako azken zatian eman dute txur-urdiak bere mailarik onena eta, aurreko astean Bilbon irabazi eta gero, azken jardunaldira mailari eutsita iritsi ziren. Agustin Aranzabal bergararra (28 urte) itxaropentsu dago taldeak hurrengo denboraldian gora egiteko.

Zaleek sekula baino gehiago sufritu dute aurretik Realarekin.

Bai, ez dugu denboraldi onik egin. Hasierako partiduetatik gauzak okertu zitzaizkigun eta oso zaila gertatu zaigu egoera horri buelta ematea. Hala ere, ligako azken hamar partiduetan taldeak oso ondo jokatu du, garaipen garrantzitsuak lortuz eta joku ona eta golak eginez gainera. Ligako bigarren itzulian taldea ona dugula erakutsi dugu. Zorionez guztion artean lortu dugu zuloatik ateratzea eta oso pozik gaude mailari eutsi izanagatik.

Osasunaren kontrako partiduak zeresan handia eman du...

Normala da behin gure helburua lortuta taldea erlaxatzea. Argi dago ez genuela partidu onik jokatu Osasunaren kontra baina irabazteko ahaleginak egin genituen. Dena den, ligako azken partiduekin beti horrelako eztabaidak pizten dira eta alde batetik edo bestetik mesfidantzak sortzen dira. Osasunari irabazteko, beste talderen baten *primak* jaso genituela esango zuen norbaitek. Kontua da Oviedok



Aranzabalek bederatzigarren denboraldia bete du Realarekin.

**“Hasierako partiduetatik gauzak okertu zitzaizkigun eta oso zaila gertatu zaigu egoera horri buelta ematea”**

**“Toshackek *beteranoak* oso ondo ezagutzen gaitu eta atzerritarrekin eta gazteekin denboraldi ona egin dezakegu hurrengo urtean”**

bere esku zuela mailari eustea baina huts egin zuela Mallorcan. Ez dut uste Oviedok guri errua botatzeko arrazoia duenik.

**Aurtengo denboraldian hiru entrenatzaile izan dituzue. Zer gertatu zen Clementerekin eta Alonsorekin taldeak ez erreakzionatzeko?**

Denboraldi berean hiru entrenatzaile izateak zer-

bait gaizki dagoela erakusten du. Arrazoiak bilatzea zaila izaten da. Futboleko emaitzek agintzen dute, eta ligaren hasieratik gaizki ibili ginen. Zuloan sartu ginen, taldea urduri jarri zen eta bazirudien horrik ateratzea ezinezkoa gertatuko zitzaigula. Clementerekin eta Periko Alonsorekin, zoritxarrez, ez genuen lortu gure beneta-

ko maila ematea. Gauzak ez ziren ondo irten, besterik gabe. Toshack etorri zenean, aldiz, taldeak gora egin zuen. Ligako azken txanpan oso ondo ibili gara eta Mallorcako partidutik hona taldeak oso ondo jokatu du.

**De Pedro, Idiakez, Pikabea eta zu taldearen oinarria izango zarela adierazi zuen Toshackek.**

Toshackek ondo ezagutzen gaitu, berarekin hasi baikinen lehen taldean jokatzeko. Alberto eta Loren ere hor daude, *Bonba* ere bai... Ekipoko zutabea hori izan daiteke eta atzerritarrekin eta gazteekin denboraldi ona egin dezakegu hurrengo urtean. Taldea badirudi osatuta dagoela eta Kvarme izan daiteke fitxaketa bakarra, nahiz eta udan gauza asko pasatzen diren.


**Kirol kazetarien uste-tan azken bi denboraldietan zure jokoak behera egin du eta Espainiako selekzioetik kanpo ere geratu zara azkenaldian. Zer deritsozu?**

Taldea gaizki dabilenean zaila izaten da destakatzeko, eta azken bi urteak ez dira batere onak izan Realarentzat. Ni ere kontzienten naiz askoz ere gehiago egin dezakedala. Dena den, aurtengo denboraldiko azken partiduetan egindako lanarekin pozik nago. Orain oporrak izango ditugu eta ea datorren denboraldirako pilak kargatuta itzultzen garen. Selektzioaren gaiak ez nau gehiegi kezkatzen. Lehenbizi Realen zentratu behar naiz eta partidu onak egiten baditut selekziara bueltatzeko aukera hor egongo da.

EDU MENDIBIL

ATZOKO TXAPELDUNAK

## Alvaro Gallastegi Pilotalaria



Alvaro Gallastegi eta Migel Angel Altuna 1968an.

Herri arteko txapelketa irabazi zuen 1968an


Zazpi urtez jokatu zuen profesionaletan

31 urte zituela erretiratu zen

**A**ngiozarko elizpean ikasi zuen pilotan jokatzeko: “santuak eta akordatuko dira zenbat bider jotzen genuen txapan” dio umorez. Bergarako Lanbide Heziketako institutura ikastera etorri zenean txapelketetan parte hartzen hasi zen: “nire lehen bikotea Jose Mari Igartua elorrioarra, Athleticeko jokalaria izandakoa izan zen. Arraroa bada ere, lehen partidua praka motzetan jokatu genuen, Oñatin, eta Erostarbe I eta Aramendia Espainiako txapelketa irabazi genien”. Alvaro ere gazte mailako Espainiako txapelketako finalera iritsi zen baina, Beristainekin batera, Oreja III eta Etxandiren aurka galdu zuten, 19-22. Bestalde, Gipuzkoako Herri arteko txapelketa irabazi zuen Bergararekin 1968an, Zumarragaren aurka, Azkoitin. Alvarok gazte mailako bikotea osatzen zuen Migel Angel Altunarekin batera. Handik lau urtera, Espainiako taldekako txapelketa irabazi zuten. Eskuz banaka, binaka eta paletan jokatzeko eta Alvarok eskuz banakakoa irabazi zuen.

Logroñon lanean zela, profesionaletan debutatu zuen Lodosan, 1974an, Eskulari enpresarekin: “Eskulariren sorrerarekin pilotako lehen iraultza egon zen, eta pike handia zegoen Empresas Unidas eta Eskularikoen artean. Nire omenaldia ere Antzuolan egin zen Bergarako frontoia ez zigutela laga. Bergaran ez nuen sekula profesional moduan jokatu”. *Zagero* postuan debutatu zuen baina aurrelari ere jokatu zuen askotan: “atzean emaitza hobetoak lortzen nituen baina nahiago nuen aurrean jokatzeko. Gure garaian atzeko paretan jotzea ia ezinezkoa zen eta gaur...”. Lan kontuengatik Bartzelonara bizitzera joan zen 1981ean eta orduan erretiratu zen. Oraindik ere astero jokatzeko arduratzen den Aitec enpresan ari da lanean. /E.M.

**“Eskulariren sorrerarekin pilotako lehen iraultza egon zen, eta pike handia zegoen gu eta Empresas Unidasekoen artean”**



Alvaro Gallastegi • Angiozar • 1950

## Gipuzkoako Hiru Txirloko txapela Felix Gomezentzat

Herriz herri ibili da txapelketa: Elgeta, Zabalera auzoa, Asolaberri Eibarren, Sagarrerreka Sorraluzen, Azkoitian, Untzillan, Lasturen eta Elgoibarko San Migelen. Herri bakoitzean hiru tirada egin dira eta guztien batura egin ostean Felix Gomez izan da irabazle. Bigarren saria San Migelgo Jabier Osorok eraman du.

Tiraldien ondoren sari banaketa egin zen eta omenaldirik ere ez zen falta izan. Sari gehien eraman zituena Sebastian Zabaleta izan zen; erretiratuen kategorian ere irabazle izan zen Sebastian.





**GRUPO**



**Amuebladora  
Mondragonesa**

a eme Interiores

Garibai 9. 943 79 15 03

Centro Hogar Muebles

Zigarrola 1, 6 eta 10 pab. 943 77 14 92


Sofa Leku

Zigarrola 1, 5 pab. 943 77 14 92

a eme Sukaldeak

Zigarrola 1, 6 eta 10 pab. 943 77 14 92

ARRASATE



# Goienka 2a

Egubakoitza / 2001eko ekainaren 22a

Kultura  
eta  
Aisialdia



Ekainaren  
22tik 29ra

## Dantza sueltoan nagusi

**E**uskal dantza lanbide izatea oso zaila dela adierazi digute Asier Ena eta Maite Lazkanok. Bikote honek lanbide bakartzat ez badu ere, ordu dexente eskaintzen dizkio hanka jokuari eta horren ondotik etorri da txapelketara apuntatzen den guztiak desiratzen duen txapela. Seguran izan zen Euskal Herriko Dantza solteko 25. txapelketa eta hamalau bikoterekin lehiatu ostean bergararrak izan ziren garaile. Txapelketa hau azken urteotakoekin alderatuz berritasun pozgarri batekin etorri da. Herrialde gehienak izan dira ordezkatuak eta gipuzkoarrek oraindik pisu nabarmena badute ere, Bizkaia, Araba eta Nafarroako bikoteek ere erakutsi dute egiten dakitena. Egon diren bikoteen artean izan da freskotasuna erakutsi duten bikoterik, jantzi dotoreekin dantzatu duenik edo teknika erakutsi duenik. Faboritoak Kimetz Larrañaga eta Eneritz Epelde ziren, azken hiru urteetako irabazle izan diren azkoitiarrak, hain zuzen. Ikusleak aldiz ez ziren zure eta lur geratu epaimahaiaren iritziarekin. Bergarrek, dantza egin ostean, sekulako txalo zaparrada jaso zuten. Gu txalo horiek jaso zituen bikotearekin egon gara, Asier Ena eta Maite Lazkanorekin. IBAN ARANTZABAL /14

## Dantza

Dantza sueltoko txapelketa

## Euskal Herriko dantzari onenak

MAITE LAZKANO ETA ASIER ENA BERGARARREK EUSKAL HERRIKO DANTZA SUELTOKO TXAPELKETA IRABAZI DUTE

**S**eguraren jardun zuten Euskal Herriko dantza sueltoko bikoterik onenek Euskal Herriko dantza sueltoko txapelketako 25. jardunaldian. Onak denak, baina onenak, beharbada freskotasuna eta teknika erakutsi zutelako, Asier Ena eta Maite Lazkano izan ziren, bergararrak biak ere.

**Aurten herrialde guztiok hartu duzue parte Euskal Herriko txapelketan.**

A.E. Bai, Iparraldekoak kenduta Hegoaldeko bikoteek jokatu dugu txapela. Hasieran 21 bikotetatik 14 geratu ginen txapelketan. Normalean dozena bat bikote izaten dira, baina legeak herrialde bakoitzetik bikote bat egotea eskatzen duenez, 14 bikote egin dugu txapelketaren azken txanpa. Iparraldekoak ere egon izan dira, baina aurten ez da horrelakorik egon.

**Hegoaldekoak izan dira taldeak, baina pisua Gipuzkoako taldeok izan duzue.**

A.E. Bai, halaxe da. Euskal Herriko txapelketan gipuzkoarrok izaten dugu partaidetza handiena, ohitura kontua izango da.

M.L. Ez dakit zergatik izango den, baina Nafarroatik, Bizkaitik, Arabatik... bat edo bi bikote izaten dira. Zergatia ez dakit, baina gipuzkoan gauden 20 bikote horiek beste herrialdeetan ere izatea gustatuko litzaidake.

**Noiztik diharduzue dantzan?**

A.E. Hainbat bikote izan ditut lehendik, baina aurreko jardunalditik Maiterekin dihardut. 7 urte dihardut dantzan, adinik onena adin horren bueltan egoten da.

M.L. 4-5 urterekin hasi nintzen. Nik neuk esan nuen dantza gustuko nuela eta gurasoek apuntatu ninduten dantza ikastaro batean. Moises Azpiazu dantza taldean hasi nintzen ni ere. 7 urte bete berri, erakustaldi batera eraman gintuen maisuak. Lehen Bergarako beste batekin egiten nuen dantzan. 18 urtera arte ibili nintzen berarekin. 99an dantza egin barik egon nintzen eta gero Asierrekin hasi nintzen hurrengo urtean.

**Aurreikuspenak bete dira. 3-4 talde zeuden onenen artean. Kimetz Larrañaga eta Ene-**

**"Ohitura kontuagatik-  
edo, gipuzkoarrok izaten  
dugu dantza kontuan  
pisurik handiena. Baita  
Euskal Herriko txapelke-  
tan ere"**  
ASIER ENA

**"Begirakunearekin egi-  
ten dugu elkarren arte-  
ko komunikazioa. Beti  
egoten da pausoren bat  
zailagoa dena eta horre-  
lakoak begiratuarekin  
laguntzen ditugu"**  
MAITE LAZKANO



Hispalau talde zeuden faboritoen artean, eta horietatik bikote batek irabazi behar eta Maite Lazkanok eta Asier Enak eraman zuten saria.

EUSKALDUNON EGUNKARIA

**ritz Epelde edo Azpitarte anai-arrebak, azkoitiarrak ere hor zeuden...**

M.L. Oso maila handia egon da txapelketan eta horrek, kalte baino on egin digula esan dezakegu.

**Entrenamendu handia behar-  
ko da?**

M.L. Hasiera batean astean bi egunetan egiten genuen, eta Segura baino hilabete eta erdi lehenago ordu eta erdiko 3-4 saio egin izan ditugu. Gehienetan bikotearekin.

A.E. Maitek esan duen moduan bikotean entrenatzen dugu eta txapelketa hurreratu ahala erritmoa azkartzen da.

**Zeintzuk izan  
dira zuen irakasleak?**

A.E. Nik hasieran Moises Azpiazu dantza taldean jardun dut, baina gero Donostia alde-  
ra joan eta orain euskal dantza eskola bat daukat Donostian. Estiloz, Bergara aldekoa lantzen dugula ezin ukatu hala ere.

**Egun txarrak ere egongo dira eta ez dute beti ondo irtengo ez.**

Azterketak, lana... animoa da garrantzitsua, eta egun txarrei animoarekin egiten diegu aurre.

**Jantziek ere gero eta garrantzi handiagoa hartu dute.**

M.L. Bai, halaxe da. Orain arte, baserritar jantzi tipikoak erabiltzen genituen, baina orain, aldaketa handia dago. Traje batzuk dotoreagoak, koloretsuagoak izaten dira eta horrek ere eragiten du. Puntuatu ere egiten da janzkera. Traje politenari saria ematen zaio.

Gurea Hondarribiko lehengo traje batetik aterata dago eta amantalak badu 1920ko zatirik ere.

A.E. Prakak urdin argi tonuan erabiltzen ditut arraia batzuekin. Gerrikoa beixa da eta alkandora zuriaren gainean txaleko urdina.

M.L. Gaurko egunean erabiltzen ditugun jantziak lehen erabiltzen zirenen antzerakoak dira.

**Pausoak ere aldatuko ziren tra-  
jeekin batera**

M.L. Dudarik ez. Trajeak aldatu dira eta dantzak ere bai. Badi-  
ra lehengo pausuk jarraitzen dituz-

tenak, baina guk, esaterako, egin ditugu aldaketa batzuk.

**Jai folklorikoetara mugatuko  
da dantza?**

M.L. Ez dut uste. Txapelketatik harantzago ere zabaldu daiteke dantza. Gure dantza errekonozitua dago, baina ez flamenkoaren beste. Gurea da, tradizioz dator eta hori areto eta antzokietara eraman beharko litzateke. Txapelketa ez den beste maila bateko erakustaldiak ere egin daitezke.

IBAN ARANTZABAL

## Hogeitabost urte aurre-aurrean

Beste behin Bergarara etorri da txapela. Maitek eta Asierrek estreinako aldiz irabazi dute, baina lehenago ekarri dute beste batzuk. Domekakoarekin sei bider irabazi dute Bergarako bikoteek. Juantxo Urbietak eta Amaia Agirre osintxuarrek 1984an eta 1986an irabazi zuten. Amaia Agirrek (aurrekoarekin ez du zerikusirik, izen eta abizen berdinak izan arren) eta Edu Muruamendiarazek, oster, 1993an, 94an eta 95ean irabazi zuten. Oraingoan, Maite Lazkano eta Asier Ena izan dira garaile.

Segurako Euskal Herriko Dantza Suelto-  
ko Txapelketak 25 urte bete ditu aurten, eta saritutakoen artean beti egon dira bergararrak. Hori bai, azkoitiarrekin eta hernaniarrekin lehian. Mikel Etxaniz, Ana eta Kristina Agirre, Joseba Aseginolaza, Edurne Arzelus, Jaione Arana, Iñaki

eta Izaskun Pardina anai-arrebak, Aitzol Ena, Irantzu Lizarralde... asko dira Seguran saritutakoak. Denetatik gehien Edu Muruamendiaraz. Trikitixan eta arin-arinean primeran jarduteaz gain, hiru bider jarraian Euskadiko aurreko txapeladuna izandakoa da, eta gaur egun Aukeran taldean murgilduta dabil euskal dantza tradizioz-  
la berritzen.

Bergaran dantza sueltotan hain ondo egitearen "errua" Moises Azpiazu zenari zor zaio hein handi batean. Berak sartu zien zaletasuna 80ko hamarkada gaztetxoei eta gaur egun bere iloba Danik dihardu dantza erakusten. Honen ikasle Josune Fernandezek eta Alex Torrek irabazi dute aurten ere 14 urtez azpikoentzako Euskal Herriko txapelketa. (ENEKO AZKARATE)

Kronika | Porturen omenezko kontzertua

# Omenezko zita ahaztezina

**Taldeak:** Eskizofrenia Rock, Heriotza, Anti-Regimen, Puñetazo, Odio, MCD, Ume Gaiztuak, RIP.  
**Zenbat ikusle:** Jende asko, eta MCDren hasieratik RIPen bukaeraraino, 2.000-3.000 pertsona erraz. **Iraupena:** 20.30etik 03.00ak arte.

**A**ntolatzaileek ez zuten handikeriarik nahi eta horregatik ez zuten jaialdia behar bezala iragarri. Ikusle kopurari baino, ekitaldiari eta omenezko garrantzia eman nahi zioten. Hala ere, Monterron betetzea bertu zuten, eta ez da gutxi.

Eskizofrenia Rock-ekoak taularatu ziren lehenak. 20:30ean oraindik Monterronen jende askotxo ez bazegoen ere, gogor aritu zen Arrasateko hiru talde gaztea eta sasoiak daudela erakutsi zuten punk doinuak eta amon hitzak uztartuta. Jarraian, Eskizofrenia eta Arrasateko taldekideak zuten Heriotzak jo zuten. Urteetan geldirigon ostean, iaz bildu eta pasatzen egubakoitzean bigarren emanaldia eskaini zuten iraganeko partaideek. Erritmoa eta doinu biziak ez ziren falta izan. Iruneko Anti-Regimen punkiek ere ez zuten hutsik egin. Garaikortaldeak berberen bitartez aspaldiko "Bebe", "Heroina" edota "¿Dónde está?" klasikoak entzuteko paratuta izan genuen. Hauen ondoren, Porturen lagun den Mak taularatu eta RIPeko baxu jotzailea izandakoaren omenez esaldi batzuk irakurri zituen, jende mordoak isilarazi eta bat baino gehiago hunkitu zituelarik.

80ko hamarkadako Puñetazo Oi taldeak aurrealdean jende pila bildu eta Porru abeslariari esker Monterroneko giroa erabat piztu zen. Porruk, Porturen anaia diren Nabo eta Juanillok, eta Bañosek Puñetazo beraren Oi! kantuez gain, partaide antzekoak zituen Cirrosisen bizpahiru abesti punk eskaini ziz-



Rip taularatu zenean eromena nagusitu zen eta Karlosek aurreko lerrokoekin batera abestu zuen.

IKER ZUBIA

kiguten, askoren gozamenerako. Tartean, Blitz taldearen "Hay que machacar" kantuan Heriotzaren lehenengo abeslaria zen Gaztañagaren laguntza jaso zuten. Klasi-koekin jarraituz, Pikotas mitikoak zuzentzen duen Odio ere izan genuen Arrasaten gau horretan. Duela urtebete zuzenekoetara itzuli ziren oreretarrak, abeslaria izan ezik gairontzekoak berriagoak badira ere, eta ez zuten asko entseatu behar izan. Batutako kresta ugariak ondo hartu zuten hauen eskaintza.

Dezente itxaron behar izan genuen MCD hasi orduko, eta Monterron bete samar zegoen. Bilbotarrak 1979an sortu ziren, eta partaide aldaketa asko izan badituzte

ere, ez dute inoiz atsedetik hartu. Hori argi eta garbi erakusten dute euren zuzenekoetan. Hasieratik dauden taldekideak batera eta baxu jotzailea dira, baina abeslariak, esaterako, ondo baino hobeto daki ikuslegoa xaxatzen. Tes-tinguruz ederto jabetu eta abesti zaharrenak jo zituzten bilbotarrek, "Athletic zuri eta gorria" barne, noski. Ondoren, beste tarte luze bat itxaron eta Ume Gaiztuak taularatu ziren. Tamalez, dagoeneko Jokin eta Portu ez daude gure artean, eta Etsaiak-eko Iñigitok eta Paulillok (Jokinen anaia) lagundu zituzten batera jotzailea eta abeslari-bertsolaria. "Tipi-ttapa" eta "Palestina" eskaini zizkiguten.

Gerora, parkea pil-pilean zegoela, musika klasikoarekin Porturen irudi batzuk eskaini zituzten eta bat-batean, Rip taula gainean!! Jende asko zutik, izugarriko pogo aurrealdean, jende guztia abesten... Oso berezia izan zen "Escoria" abestera Doble Cero-ko abeslari zen Mallabi igo izana. Bestalde, ikuslegoak Mahomak beste abestu zuen, eta honen eta ikusleen arteko txantxak ugariak izan ziren. Emanaldia oso hunkigarria izan zen eta bukatzeko ohiko "California" (Youth Brigade), Abrasive Wheelen "The punks go marching in", "Lepoan hartu" eta "Mondra" kantuek jo zituzten.

IKER BARANDIARAN

## Nire aukera

### Josu Atxaga Aretxabaletako zine klubaren arduraduna

**G**izon Armatuak" guztiok ikusi behar-ko filma iruditzen zait. John Sayles zinegile handiak



sinaturiko beste altxor bat dugu, non berak Hego Amerikako errealitatea zelakoa den jakinik, ondo asko erakutsi gura izan digu, modu xume eta gogorrean.

Gutxi batzuk ausartu ohi dira errealitate gogorra islatzen duten filmak egiten, ez baitute inongo ordain ekonomikorik ematen, baina bai gauza hobirik, errealitatea guztiei jakinaraztea bezalakorik.

Honela dio zuzendariak: "Film hau inoiz etsitzen ez duten eta beti bizitza hobe batengatik borrokan ari diren pertsonen buruzkoa da".

### 'GIZON ARMATUAK' John Sayles



LEIRE KORTABARRIA

## Kaleratu berriak

Ben Arantzabal

### LIBURUA | Gazteentzako liburua



AMODIOAREN  
GAZI-GOZOAK  
Aitor Arana  
Ibaizabal  
argitaletxea  
245 orrialde

**A**itor Arana idazleak sortze lanean darrari, eta bere lan oparoaren beste ale bat da Ekin bilduman Ibaizabalek atera duen liburu hau. "Amodioaren gazi-gozoek" gazteendako egindakoa da, 12tik 17 urte bitartekoendako. Intriga, abentura, umorea, poesia, mota guztietako narrazioak aurki ditzakete gazteek.

Istoria XX.mendearen hasieran kokatzen da, lanerako oraindik pertsonak saltzen ziren sasoiak. Kartzela izandako baserri bat nola paradisu bihur daitekeen ikusi dezakegu kontakizun honetan.


### LIBURUA | Kanturako



EUROPEAN  
KANTARI  
The pub ibiltaria  
87 kanturen  
hitzak

**B**adira 5 urte Oskorrikoak "The pub ibiltaria"-ren kontzertuak ematen hasi zirela, eta ordutik hona egindako lana ez da makala izan. 87 kantu eman dituzte argitarara 5 diskotan, eta disko horietan agertzen diren kantuetako hitzak dira oraingoan argitaratu dituztenak. Askok dira ahaztuak genituen kantuak, kantu ederrak, esanahi handikoak eta gogoangarriak... bertsioak ukitu bereziarekin datoz, aberatsago eta osoago. Kantuak Euskal Herriko beste bi hizkuntzetan itzuliak eta partitura eta akordeak lagunduta datoz.

### DISKOA | Musika indartsua



FLY SHIT  
Gaztelupeko  
Hotsak  
12 kanta

**B**ertsio punki batzuk atera eta kontzertuak egiten hasi zirenetik erritmo gogor eta sendoak egiten dituzte, bide batez melodia zaintzen dutela. Fly Shit taldeak kantu propioak egiten zituen hasiera punkiak eta gero.

Mota guztietako musika entzuten duen taldea da eta hori nabari da diskoaren mestizaian. Instrumentuak landu, gero eta gehiago jo... Grabaketa Arrasateko SHOT estudioan eginga dago, bailarako hainbat taldek grabatu duten musika etxean.

# Ekaina: 22-29

Edu Mendibil / Zuon ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguazteneko eguerdiko 12.00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: [erredakzioa@goiena.com](mailto:erredakzioa@goiena.com) • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77

## Antzerkia

### BERGARA

> **El frigo show** umeendako kale antzerkia zapatuan, hilak 23, Fraiskozurin, 19:00etan. Miguel Pino Produkzioak taldearen eskutik.

## Musika

### ARRASATE

> **Goikobalu Txiki eta Gazteren** emanaldia egubakoitzean, hilak 22, San Frantzisko elizan, 20:00etan.  
> **Gaztelu Konbo** taldea domekan, hilaren 24an Jaizale tabernan, 20:00etan.  
> **Mikel Urdangarin** astelehenean, hilak 25, Monterronen, 22:00etan.

## Erakusketak

### ARRASATE

> **Jon Balentziagaren** margo erakusketa Aita Menni ospitalean uztailaren 2a arte.  
> **Koldo Gojenolaren** margo erakusketa Toki-Eder kafetegian.

### BERGARA

> **Nere Atorrasagastiren** margolanak oliotan Nahikari tabernan, uztailaren 1a arte.  
> **Emakumeek egindako eskularen** erakusketa Kultura Etxean, domekara arte. Udaleko Gizarte Zerbitzuak antolatuta.

### EIBAR

> **Luis Laskurain** bergararren margolanak Topaleku aretoan, ekainaren 22tik uztailaren 1era.

## Lehiaketak

### ARRASATE

> **Komiki ez sexisten IV. lehiaketa**, Arrasateko Udalak deituta. Lanak aurkezteko epea uztailaren 20an bukatuko da. Testuak euskaraz zein gazteleraz aurkez daitezke. Lehen saria 100.000 pezeta da. Beste hainbat sari banatuko dira. Argibide gehiago Emakume sailaren bulegoan jaso daitezke, 943 79 09 00 telefono zenbakian.

> **Argazki lehiaketa** deitu du Arrasateko Udalak. Lanak aurkezteko epea urriaren 11ra arte izango da zabalik. Zuribeltzeko zein koloretako argazkiak aurkeztu ahal izango dira. Argibideak udaletxean, 943 79 09 00 telefono zenbakian.

### BEASAIN

> **IV. Igartza literatur sorkuntza**

### ko beka idazle berrientzat.

Deialdi honetara, narratibazko lanak (eleberri edo ipuin-bildumak) egiteko proiektuak aurkez litezke. Bekak 1.000.000 pezeta-ko dirulaguntza izango du. Proiektuak aurkezteko epea ekainaren 30ean bukatuko da. Argibide gehiago Beasaingo udaleko euskara zerbitzuan, 943 02 80 50 zenbakian.

### GASTEIZ

> **Gazteen Bideo Amateurraren IX. Erakustaldia.** Filmak (hiru kopia VHS sisteman) aurkezteko epea uztailaren 31n bukatuko da. Lan onentzat sariak egongo dira. Argibideak 945 28 61 42 telefono zenbakian.

### ZALDIBAR

> **Zaldibarko toponimia** jaso eta finkatzeko lehiaketa. Lana egiteko 12 hilabete izango dira eta lehiaketaren zenbatekoa 1.800.000 pezeta izango da. Norbanakoek nahiz horretarako osatutako lantaldeek eskatu ahal izango dute lehiaketan esku hartzea. Lehiaketan esku hartzeko unibertsitate tituluduna izatea beharrezkoa da. Argibide gehiago 94 682 70 16 telefono zenbakian.

## Ikastaroak

### ARRASATE

> **Gorputz lan bioenergetiko taldea.** Eguazteneko, 18:30ean. Arrasate Yoga Elkarteak antolatuta. Argibideak 616 96 57 95 telefono zenbakian.

> **Udako gazte ikastaroak**, 15 urtetik gorakoei zuzenduta: argazkigintza (zapatuetan, ekainaren 30etik uztailaren 28ra), gaur egungo dantza (uztailaren 2tik 13ra, astebarruan), irrati tailerra (uztailaren 2tik 27ra, astelehen eta eguaztenetan) eta arkeologia tailerra (uztailaren 9tik 20ra, astebarruan). Izena ematea eta argibideak Gazte Bulegoan, 943 77 00 65 zenbakian.

### ARETXABALETAKO

> **Garapen pertsonala taldea.** Hilean bi bilduko dira larunbatean, 10:00etatik 14:00etara. Informazioa eta argibideak 616 96 57 95 telefono zenbakian.

### DEBAGOIENA

> **Udako Euskal Unibertsitateak** antolatzen dituen udako ikastarotan izena emateko epea zabalik dago. Miarrizko ikastaroak uztailaren 2tik 6ra bitartean egingo dituzte, eta Iruñekoak 16tik 27ra. Izena ematea eta argibideak 943 82 14 26 telefonon.

### DEBA

> **Debako Arte Eskola.** Udako

ikastaroak uztailaren 2tik aurrera: kalkografiako grabatuaren hastapenak, zeramikaren hastapenak, brontze galdaketa artistikoa, marrazketa eta pintura tailerra, marmolezko eskultura edota egurra lantzeko tailerra. Argibideak eta izena ematea: 943 19 18 04.

## Deiak

### ARRASATE

> **Bilbo eta bere emakumeak bidaia kulturala** ekainaren 30ean, Arrasateko Udaleko Emakume Sailak eta Arrasateko Emakumeen Kontseiluak antolatuta. Bi ekintza eskaini dituzte: Bilbon, hango emakumeen historiaren eskutik paseatzea eta Guggenheim museoa bisitatzea. Irteera ekainaren 30ean izango da, 09:00etan Garibaitik. Izena ematea ekainaren 28a arte zabalik Emakume Sailean (943 79 09 00 edo 943 79 41 39). Langileak 1.000 pezeta, eta langabeak, erretiratuak eta laguntza ekonomikoa jasotzen dutenak, 600 pezeta.

### BERGARA

> **Jardun elkarteak** irailetik aurrera Bergaran abian jarriko duen "Kuadrillategi" izeneko egitasmorako dinamizatzaileak behar dira. Bete beharreko baldintzak: 20 urtetik gorakoa izatea, euskaraz jakitea eta irakasle ikasketak,

pedagogia, psikologia, soziologia nahiz gizarte hezkuntza ikasten egon edo ikasketak bukatuak izatea. Interesatuok ekainaren 30a baino lehen bidali behar dute curriculum helbide honetara: Jardun elkarte. Juan Irazabal z/g (Kartzela). 20570 Bergara.

> **EHEk** deituta, ekainaren 23an Gasteizen egingo den ofizialtasunaren aldeko manifestaziora joateko auto karabana irtengo da frontoetik, 15:30ean.

### > Bergara Kirol Elkartearen

batzar orokorra egubakoitzean, hilak 22, kultura etxean, 19:30ean.

### > Jose Mari Etxaniz eta Luis Etxeberria

preso ohien aldeko omenaldi-afaria zapatuan, hilak 23, udal pilotalekuan, 21:00etan. Txartelak ohiko tokietan salgai. Afariaren aurretik, 19:00etan, preso-erakundearen aldeko ekitaldia egingo da San Martin plazan.

> **Hitzaldia: Txerri hazkuntza aire librean.** Astelehenean, hilak 25, Bergarako Nekazaritza Bulegoan, 20:30ean.

### OÑATI

> **San Juan sua** piztuko da Olaiturrin zapatuan, hilak 23, 22:30ean. Horrekin batera txalapartariak, Oñatz dantza taldea eta Musika Eskolako trikitariak arituko dira. Laixan elkarteak antolatuta.

> **Aloña Mendi kirol elkartearen**

batzar nagusia egubakoitzean, hilak 22, Aloña Mendi kirol elkartearen egoitzan, 19:30ean. Batzarraren ondoren, 21:15ak aldera, denboraldi amaierako afaria izango da Echeverria jatetxean. Jatetxean bertan ohiko aipamen eta sarien banaketak egingo dira.

> **Pirinioetara irteera** uztailaren 21ean eta 22an, Aloña Mendik antolatuta. Uztailaren 21ean Cauterets-en izango dira eta uztailaren 22rako bi aukera egongo dira: Petit Vignemale edo Vignemale Handia. Vignemale Handira igotzeko beharrezkoak dira pioleta eta kranpoiak eramatea. Izena ematea uztailaren 16a arte zabalik.

### ELGETA

> **Herri bazkaria** ekainaren 29an Oskarbi elkartearen. Txartelak Eroslen, Estankoen eta Udaletxean salgai.

### DEBAGOIENA

> **Etxaniztarren** anaiarteko eguna uztailaren 1ean. 13:00etan, meza Loiolako Santutegian eta jarraian bazkaria Kiruri jatetxean. Izena ematea 943 81 56 08 zenbakian.

## Jaiak

### ARETXABALETAKO

> **San Juan bezpera** zapatuan, ekainaren 23an. Kukubiltxo talde-



### JAIK

## TANTAIA JASOTZEA ARETXABALETAN

Astebukaeran San Juan jaiak izango ditugu Debagoieneko hainbat herritan. Aretxabaletan ere San Juan bezpera ospatuko dute zapatuan. Arratsaldean Kukubiltxo taldeak *Txirrikiz* antzezlan eskainiko du 17:00etan eta 18:30ean buruhandien kalejira izango da, Aretxabaletako txistulariek alaituta. Jarraian, 19:00etan, Loramendi dantza taldearen eta Leizarra musika eskolako saioa izango da. Irailerako Sei musika taldearen emanaldien ondoren, Loramendi dantza taldeko nagusiek San Juan dantza eskainiko dute eta San Juan sua egingo da. Gauerdi partean Santa Ageda mutilek pinua altxatuko dute plazan, aspaldiko ohiturari eutsiz.





# San Juanak Arrasaten

## Egubakoitza 22

- Ludoteketan eta Gazte Txokoetan Kamiseta tindaketa egunean zehar.
- **23:00** Herriko kaleetan zehar Ksusta antzerki taldearekin "Gaueko sugarrak" kale antzerkia. Amaieran, Txosnagunean antzerki saioa.

## Zapatua 23

- **12:00** Seber Altube plazan hasita haur animazioa Goloka taldearekin.
- **15:00** Diana Arrasateko txistulariekin.
- **16:00** Herriko plazan etxafleroak eta bonba japoniarrak.
- **16:30** Jokin Zaitegi plazan, xake partida azkarrak: Herri arteko V. txapelketa (Iruñeako Hoberena, Baiona, Gross eta Arrasate).
- **17:00** Uarkape udal pilotalekuan Takolo Pirritx eta Porrotx pailazoan "Parrandan" emanaldia. Sarrera: 500 pta. Sarrerak alde zuzenetik salgai pilotalekuko txarteldegian ekainaren 20, 21 eta 22an. Orduetgia 18:00-20:00.
- **17:00** Koadrilak Maalan elkartuko dira Makala herriko plazaraino ekartzeko.
- **18:00** Herriko plazan koadrilek Makala jasoko dute.
- **19:30** Koadrilen arteko Triki Poteoa.
- **19:30** San Juan Bataiatzailearen Parrokian Salbe Nagusia.
- **21:30** Nafarroa etorbideetik Herriko plazaraino Errementari dantza; Arrasateko euskal musika eta dantza taldeekin.
- **20:30** San Juan sua Herriko plazan.
- **22:30** Nafarroa etorbideetik irten eta kaleetan zehar, Nagusien danborrada Eskoriatzako Musika Bandarekin. Ibilbidea: Nafarroa etorbidea, Laubide plaza, Garibai etorbidea, Maala, Erdiko kalea eta Herriko plaza. SUDCek antolatua.
- **23:00** Txosnagunean rock kontzertua. Taldeak: Anger, Numen eta Versus.
- **01:00** Herriko plazan, Gaubela taldearekin dantzaldia.

## Domeka 24

- **08:15** Herriko plazan txokolate jana.
- **08:30** Diana Arrasateko gaiteroekin.
- **09:00** Entzierroa. Ferrerías kaletik irten, Erdiko kaletik eta Iturbidetik pasatu ostean, Laubiden egongo den Zezen plazan bukatuko da. Gero, zaleentzat bigantxak izango dira Zezen plazan.

- **11:00** San Juan Bataiatzailearen Parrokian, meza nagusia.
- **11:00** Arrasateko erraldoi eta kilikien konpartsaren irteera.
- **11:30** Arrasate Musikaleko musika bandarekin kalejira.
- **12:00** Herriko plazan ohorezko aurrekua eta San Juan zortzikoa.
- **12:30** Abaroan 80 urtetik gorako nagusiei omenaldia.
- **13:00** Monterron Parkean kontzertua Arrasate Musikaleko bandaren eskutik. Egitaraua:
  - "Gasteiz" (J. Fresco).
  - "Herri Txikiko jaiak" (E. Gonzalez).
  - "Black, el Payaso" (P. Sorozabal).
  - "El profeta Meyerbeer".
  - "La canción del olvido" (J. Serrano).
  - "American Folk Rhapsody 1" (C. Grundman).
  - "Gora Arrasate" (J. Arzamendi).
  - "San Juan Himnoa" (zuzenketak: Juan Arzamendi).
 Zuzendaria: Eduardo Arzamendi Zeziaga.
- **17:00** Uarkape udal pilotalekuan profesional mailako pilota partiduak.
- **18:00** Zaldibar pilotalekuan arku tiraketako lehiaketa. Aukera izango da nahi dutenek arku tiraketan aritzeko.
- **18:00** Mus, partxis... partida azkarrak Gaztetxean.
- **19:00** Arrasateko gaiteroekin kalejira.
- **19:30** Txosnagunetik hasita bertso txikiteoa. Bertsolari hauek parte hartuko dute: Ainhoa Agirreazaldegik eta Arkaitz Estiballesek.
- **20:30** Herriko kaleetan zehar Kubako Son Caliente taldearen eskutik "Kubatar kongra".

- **21:00** Herriko plazan Dragoi jana. Han erretako dragoia hantxe bertan dastatzeko aukera. 22:00etatik aurrera, jaialdi mestizoa: Txalaparta taldea, Agirreazaldegik eta Estiballes bertsolariak, Son Calienteren dantza kubatarrak, perkusio taldea, Arrasateko gaitero eta trikitilariak, Egan taldea, Txartelak salgai: AED, AEK eta Monte eta Iturriotz tabernetan. Prezioa: 1.500 pezeta. Antolatzaileak: AED eta AEK.
- **23:15** Herriko plazan Egan taldearekin dantzaldia.
- **24:00** Santa Barbaratik su artifizialak.
- **24:30** Monterron Parkean Kubako Son Caliente taldearen emanaldia.
- **05:00** Kulero eta galtzontzilo karrera popularra.

## Astelehena 25

- **08:15** Herriko plazan txokolate jana.
- **08:30** Diana Arrasateko gaiteroekin.
- **09:00** Entzierroa. Aurreko eguneko ibilbidetik. Gero, zaleentzat bigantxak izango dira zezen plazan.
- **10:00** Haur eta gaztetxoak iratzartzeko herrian zehar Diana izango da.
- **11:00** Zaldibarren Eguzkilaruri ongietorria prestatzeko hainbat ekintza.
- **12:00** Eguzkilaruri ongi etorria, Zaldibarren. Gero, jolas parkea irekiko da.
- **14:30** Bazkaria Gaztetxean. Ostean Txosnagunean Herri Olinpiadak. Bukaeran poteoa txarangarekin.
- **14:30** Haur eta gaztetxoentzako bazkaria Zaldibarren (ez ahaztu bokata ekartzeaz).

- **16:00** Zaldibarren, Eguzkilaruren jolas parkea irekiko da berriro.
- **18:00** Zaldibarren Txatxilion.kom ikusketuna.
- **19:00** Zezen plazan jaialdia.
- **19:15** Zaldibarren Eguzkilaruri agurra.
- **20:00** Herriko kaleetan zehar Trapu Zaharra antzerki taldearen eskutik "Paketito" kale antzerkia.
- **22:30** Herriko plazan Etzakit taldearekin dantzaldia.
- **23:30** Monterron Parkean, Mikel Urdangarinen kantaldia.

## Martitzena 26

- **08:30** Diana arrasateko gaiteroekin.
- **09:00** Entzierroa. Aurreko eguneko ibilbidetik. Gero, zaleentzat bigantxak izango dira Zezen plazan.
- **11:00** Kalejira Incansables txarangarekin.
- **11:00** Arrasateko erraldoi eta kilikien konpartsaren irteera.
- **12:30** Kalejira Arrasateko trikitilariarekin.
- **14:30** Uarkapeko tabernan herri bazkaria. Txartelak bertan salgai. Prezioa: 1.000 pezeta.
- **17:00** Herriko plazan haurrentzako antzerkia. Panta Rhei antzerki taldearekin "Saraba" antzezlanak.
- **18:30** Uarkape udal pilotalekuan Erro enpresaren eskutik pilota partidu interesgarriak. Lehenengoa banaka eta bigarrena binaka. Langa-Pirau. Beitia eta Irasuegi (Insumiso)-Agirre (Kurasau) eta Ikutxo.
- **19:00** Incansables txarangarekin kalejira.
- **19:30** Herriko plazan soka dantza.
- **20:00** Txosnagunean rock kontzertua. Deskontrol, Fase Terminal eta Arkada Social.
- **20:15** Txinparta taldearekin dantzaldia Herriko plazan.
- **23:00** Txinparta taldearekin dantzaldia Herriko plazan.

## Egubakoitza 29

- **19:30** Jaiari bukaera emateko Monterronen Arrasateko euskal musika eta dantza taldeekin jaialdia: Goikobalu txiki eta gazte, Goikobalu, Arrostaiz, Trikitixa eskola, "Tromdumoa" tronbol taldea eta Arrasateko konjuntso instrumentala.



Entzierroak ikusmin handia sortuko dute aurtengo San Juanetan ere. Eta, entzierroaren ostean, bigantxak Laubiden jarritako Zezen plazan. Ausartenek, adarrak gertutik ikusiko dituzte. Besteek, harmailetatik. Entzierroak eta bigantxak, domekan, astelehenean eta martitzenean izango dira, 09:00etan, txokolate janaren ostean. Ferreríasetik Laubideraino.

**JAIOTAKOAK**


Ander Genua Lonbide  
Arrasaten, maiatzaren 23an.  
Eider Etxaniz Lasa  
Bergaran, ekainaren 8an.  
Asier Gallastegi Beroiz  
Bergaran, ekainaren 10ean.  
Mikkin Gallastegi Beroiz  
Bergaran, ekainaren 10ean.  
Maia Figuroa Garcia  
Arrasaten, ekainaren 10ean.  
Maddi Goenaga Jauregi  
Bergaran, ekainaren 11n.  
Malen Gardoki Larrañaga  
Bergaran, ekainaren 12an.  
Aiora Arregi Gutierrez  
Bergaran, ekainaren 15ean.  
Malen Jurado Urkia  
Metrabaletan, ekainaren 18an.

**HILDAKOAK**

Carmen Mulas Jimenez  
Bergaran, ekainaren 15ean,  
83 urte zituela.  
Jose Madariaga Agirreola  
Bergaran, ekainaren 19an,  
81 urte zituela.  
Cipriana Kortabarria Idigoras  
Amaion, ekainaren 19an,  
83 urte zituela.

**EZKONDUAK**

Jose Manuel Mateo Gato eta Amaia  
Luzoain Aranguren, ekainaren 2an,  
Bergaran.  
Francisco Betelu Cantero eta Maite  
Mañez Velasco, ekainaren 8an, Gatzagan.  
Francisco Rejano Baena eta Maria  
Aranzazu Molina Ruiz, ekainaren 9an,  
Bergaran.  
Mikel Oskoz Ascunce eta Abene  
Barrena Ruña, ekainaren 9an, Arrasaten.  
Markel Zallo Yarza eta Olatz Inda  
Irujoegi, ekainaren 9an, Arrasaten.  
Juan Peñakoba Etxebarria eta Maria  
Jesus Gomez Sanchez, ekainaren 9an,  
Arrasaten.  
Jose Jabier Mikeo Gorosabel eta Idoia  
Belitia Lezeta, ekainaren 9an, Gatzagan.  
Jose Ignacio Perez Aguado eta Begoña  
Pilar Dominguez Zurutuza, ekainaren  
10an, Elgetan.  
Aitor Misol Barbero eta Leire  
Viamonte Santillan, ekainaren 16an,  
Arrasaten.  
Iñaki Lopez Ormaetxea eta Irantzu  
Lopez de Bergara Moreno, ekainaren  
16an, Arrasaten.  
Diego Guirado eta Ana Rodriguez,  
ekainaren 16an, Arrasaten.



**Aiora Arregi Astigarraga** eta amama **Txaro**,  
bergararrak biak. Aiora ekainaren 15ean jaio  
zen, eta 3,100 kilo pisatu zuen. Ainhoa eta  
Alan dira gurasoak, bergararrak eurak ere.

**Idurre Arizmendi Sueiro** eskoriatzarra eta  
**Martin** aita, eibartarra. Idurre ekainaren  
15ean jaio zen, eta 3,290 kilo pisatu zuen.  
**Amaia** da ama, eibartarra bera ere.

**Iker Fernandez Sedano** eskoriatzarra **Angele-**  
**sen** besoetan. Iker ekainaren 18an jaio zen, eta  
3,170 kilo pisatu zuen. Antonia eta Francisco  
dira gurasoak, eskoriatzarrak eurak ere.



**Tomas Laskurain Zabaleta** eta  
**Klarita Larrañaga Zabaleta**  
antzuolarrek urrezko ezteiak  
ospatuko dituzte domekan.  
Arantzazun meza entzun ostean,  
bazkari ederra egingo dute  
senitartekoekin batera. 1951ko  
apirilaren 26an ezkondu ziren  
Tomas eta Klarita Antzuolako  
parrokian. Ezkontzaren ondoren,  
Isidoranian bazkaldu, eta  
bidaiara joan ziren. Antzuolan  
trena hartu eta Bilbora joan  
ziren. Han bi egun egin ostean,  
berriz, hegazkina hartu eta  
Madrilera. Hamabost egun egin  
zituzten Madrilan ezkontza  
bidaian. Bueltatu zirenean,  
berriz, zain zituzten etxeokak eta  
lagunak oturuntza handi batekin.  
Ondo pasatu domekan, eta  
zorianak bikote!

Eskela, urteurren meza edo  
eskertzarik jarri nahi baduzu,  
etor zaitez *Goienkariaren*  
ordezkaritzetako batera.

**Goienkaria**  
Astero 20.000  
etxetan.

Eskelen prezioa:  
10.000 pezeta.

**ESKER ONA**

**Zipriana  
Kortabarria Idigoras**

*Alexander Nafarrateren alarguna*

Arrasaten hil zen  
2001eko ekainaren 19an,  
83 urte zituela.



*Une gogor honetan laguntza eskaini eta  
samin agurrak bidali zenizkigutenoi eskerrik asko  
Odriozola Saizar familiako izenean.*

**ESKER ONA**

**Rikardo  
Guridi Idigoras**

Arrasaten hil zen  
2001eko ekainaren 11n,  
75 urte zituela.



*Emaztea: Pilar Iriarte. Seme alabak: Aitor eta Mari Asun Otxoa,  
Pedro eta Isabel Goienaga, Angel eta Raquel Viamonte, Patxi  
eta Estivaliz Hormaetxea. Bilobak: Onintza, Hodei, Haizea,  
Nerea, Gorka eta Ane. Anai arrebak: Mikaela eta Angel.*

**ESKER ONA**

**Julita  
Saizar Alberdi**

Bergaran hil zen  
2001eko ekainaren 12an,  
78 urte zituela.



*Une gogor honetan laguntza eskaini eta  
samin agurrak bidali zenizkigutenoi eskerrik asko  
Odriozola Saizar familiako izenean.*

**ESKER ONA**


**Jose Ramon  
Mendikute**

Osintxun hil zen  
2001eko ekainaren 8an,  
66 urte zituela.



*Elizkizunetara joango zaretenoi,  
alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

Eguraldia



ZAPATUA, 23

Estalita egongo dira zeruak zapatuan, eta euri txikia egin dezake. Tenperatura behera egingo du. Iparrmendebaldetik ibiliko da haizea.

DOMEKA, 24

Lainoak eta ostarteak tartekatuko dira. Euri txikia egin dezake. Tenperatura ez da aldatuko. Haizea iparraldetik ibiliko da.

Nafarroako Erribera:

Lainoak eta ostarteak.

Errioxa: Egun eguzkitsua.

Pirinioak: Eguzkia nagusi.

Nafarroako Erribera:

Lainoak eta ostarteak.

Errioxa: Eguzkia nagusi.

Pirinioak: Lainoak eta ostarteak.

ASTEKO BATEZ BESTEKO TEMPERATURA

17,2° C

ILARGIAREN ALDIAK: EKAINA



EGUZKIA: EKAINAREN 24a



Urkuluko urtegia

Mezak

Berriro ere, joan zen asteen gertatu bezala, behera egin du Urkuluko urtegiaren ur mailak. Joan zen asteen %92,96 zen ur maila; oraingo asteen, berriz, %91,64.

%91,6

ARANTZAZUKO SANTUTEGIA

Astegunetan

08:30, 12:00.

Zapatuetan

08:30, 12:00, 19:30.

Domeka eta jaiegunetan

09:00, 10:00, 12:00 (nagusia), 13:15 (gastelaniaz, Kriptan), 18:30.

Telefonoak

((112)) SOS DEIAK

Table with 2 columns: Service name and phone number. Includes Bergara, Elgeta, Eskoriatza, Leintz Gatzaga, Oñati, Hies Ekimena, Udaltzaingoak, Antzuola, Aramaio, Arrasate, Aretxabaleta, Bergara, Eskoriatza, Leintz Gatzaga, Oñati.

Table with 2 columns: Service name and phone number. Includes Bergara, Eskoriatza, Oñati, RENFE, DEBAGOIENA, Mankomunitatea, Abere hiltzegia, Mendi nekazaritza elkartea, Nekazaritza Ganbera, Kapirixo, Zerga Bulegoa, Euskara Taldeak, Debagune, Arrasate / AED, Aretxabal / Loramendi, Bergara / Jardun, Eskoriatza / Axtroki, Oñati / Laixan, Hondakindegi Alternatiboak, Arrasate, Bergara, Oñati, Kiroldegiak.

Table with 2 columns: Service name and phone number. Includes Aramaio, Arrasate, Aretxabaleta, Bergara, Elgeta, Eskoriatza, Oñati, Kultura Etxeak, Antzuola, Arrasate, Aretxabaleta, Bergara, Eskoriatza, Leintz Gatzaga, Oñati, Udalak, Antzuola, Aramaio, Arrasate, Aretxabaleta, Bergara, Elgeta, Eskoriatza, Leintz Gatzaga, Oñati.

OSASUNA / LARRIALDIAK table with 2 columns: Service name and phone number. Includes Arrasate, Bergara, Oñati, Osasun Etxeak, Arrasateko Ospitalea, Antzuola, Aramaio, Aretxabaleta.

GARRIAOK table with 2 columns: Service name and phone number. Includes Eusko Trenbidea, PESA, Taxiak, Arrasate, Antzuola, Aramaio, Aretxabaleta.

Zozketak

Table of lottery results including BONOLOTOA, LOTERIA PRIMITIBOA, ONCE, and Kupoitza. Lists winning numbers and amounts.

Autobusak

PESA 902 10 12 10

A: Astegunak / Z: Larunbatak / J: Jaiegunak eta igandak

Table of bus routes for DONOSTIA-GASTEIZ, showing times for BERGARA, ARRASATE, ESKOLA P., ARETXABAETA, and ESKORIATZA.

Table of bus routes for GASTEIZ-ARRASATE-BERGARA-EIBAR-DONOSTIA, showing times for GASTEIZ, ESKORIATZA, ARETXABAETA, ARRASATE, and BERGARA.

Table of bus routes for DONOSTIA-BILBO, showing times for DONOSTIA, ANTZUOLA, BERGARA, ELGETA, and BERGARA-OÑATI.

Table of bus routes for BILBO-DONOSTIA, showing times for BILBO, ELGETA, BERGARA, ANTZUOLA, OÑATI, and BERGARA.

Table of bus routes for OÑATI-ARRASATE-BILBO, showing times for OÑATI, ARRASATE, BILBO, and ARRASATE.

Table of bus routes for BERGARA-ARRASATE-BILBO, showing times for BERGARA, ARRASATE, BILBO, and ARRASATE.

Table of bus routes for BERGARA-OÑATI-ARRASATE-ARETXABAETA-ESKORIATZA, showing times for BERGARA, OÑATI, ARRASATE, ARETXABAETA, and ESKORIATZA.

Table of bus routes for ESKORIATZA-ARETXABAETA-ARRASATE-OÑATI-BERGARA-EIBAR, showing times for ESKORIATZA, ARETXABAETA, ARRASATE, OÑATI, BERGARA, and EIBAR.

Erakunde hauen laguntzaz. Logos for Gipuzkoako Foru Aldundia, Europar Batasuna, Arrasateko Udala, Aramaio Udala, Aretxabaletako Udala, Eskoriatzako Udala, Leintz Gatzagako Udala, and Antzuolako Udala.

Hitz gezidunak

	Hedabide mota	Sexu emea	Komenigarriak
	Izena	Nafarroako herria	
	Ez zakar		
	Gura		
	Neu		
	Sendagileak		
			Röntgen
			Kaltzio oxidoa
		Zilarra	
		Bokala	
		Interjekzioa	
		Ugaztun mota	
			Erbioa
			Bihia, garaua
	H <sub>2</sub> O	Suitzako ibaia	
	Istua	Amerizioa	
			1
			Neona
	Bokala	Euskaraz eta kitto!	



Umore giroan

Jon Irizar

**MATUTE**

Bikote bat: mutill beltza eta neska zuria. Juan da neskia amarengana, ezkondu bihar dirala esatera:

- Ama, Matuterekin ezkondu nahi dot.

- Ezkondu, nahi dozula? Ba, esaiozu Matuteri ezkontzia nahi badau, auto bat erre-galau biharko dotsula.

Juan da alaba mutillarengana, esan dotsa amak eskatutakua, eta mutillak, handik astebera, Porsche eder bat oparitu dotsa. Juan da, berriro be neskia amarengana eta autoarena kontatu. Eta amak:

- Ba, ezkondu nahi badozue, etxe bat erosi biharko dotsu.

Juan da neskia mutilla-

rengana eta egin dotsa eskaririx. Eta mutillak:

- Matutek asko maitte zaitxu eta erosiko dotsu etxia.

Erosi dotsa sekulako etxia Mallorca inguruan, eta Juan da neska berriro be amarengana. Eta amak:

- Ba, esaiozu, zurekin ezkondu nahi badau, metro bateko zakilla eduki biharko dabela.

Joan da mutillarengana eta esan dotsa:

- Matute, nere amak esaten dau, nerekin ezkondu nahi badozu, metroko zakilla eduki bihar dozula.

Eta honek:

- Matutek asko maitte zaitxu, baiña ez dau zakill zatirik moztuko!

Ezetz asmatu!

Estepan Plazaola





Zenbat laguneko familiak ugarienak?

**G**auza jakinekoea da gaur eguneko etxebizitzetan garai batekoetan baino jende gutxiago bizi dela. Esango ote zenuke zenbat laguneko familiak ziren Deba-goienean ugarienak 2000ko urte bukaeran?


- Bi lagunekoak.
- Hiru lagunekoak.
- Lau lagunekoak.

Erantzun zuzena: Bikoak, 4.761; hirukoak, 4.687 eta lauok 5.557.

Bila-bila 7



Soluzioak



S	A	•	A	•	V	•	A	E	K
U	K	I	M	E	N	A			
A	T	A	B	A	L	I			
A	R								
X	A	K	E	A					
L	I	R	A						
L	A	D	I	S					
B	E	H	I	N	K	A			
H	A	M	A	B	I	R			
Z									
L	E	U	N						
P	E	L	L	O					
A	•	T	•						

Horoskopoa

Gipuzkoako Astrologi Elkarte

**ARIES**

martxoak 21-apirilak 21



Egunotan buruko mina izango duzu seguruenik, zure oldarkortasuna ez baduzu behar bezala kanporatzen edo kirolik egiten ez baduzu.

**TAURUS**

apirilak 22-maiatzak 21



Ez dituzu jasango besteek zu zuzentzeko egingo dituzten ahaleginak, eta zuk nahi duzuna egitea gurako duzu beste edozer eta edonoren gainetik. Maitasun harremanetarako egun aproposak.

**GEMINI**

maiatzak 22-ekainak 21



Gehiegizko konfiantzak arazoak ekar diezazkizuke. Egunotan umore txarreko egongo zara zure lan egoera dela eta. Saiatu lasaitzen.

**CANCER**

ekainak 22-uztailak 22



Egitasmo berriek berebiziko garrantzia izango dute zuretzat. Kontu handiagoz ibili beharko duzu. Familiako harremanak mesedegarriak izango zaizkizu.

**LEO**

uztailak 23-abuztuak 22



Diru gehiago edo arrakasta handiagoa lortzeko ideiak abian jartzeko egun onak. Agertuko zaizkizun arazak berehala konponduko dira.

**VIRGO**

abuztuak 23-irailak 22



Zure goxotasuna adierazteko zailtasunak; beti gogorrarena egiten zabilta, hori baita sufrimendua saihesteko zure modua. Gastu asko.

**LIBRA**

irailak 23-urriak 22



Ez galdu zure baikortasuna zailtasunei aurre egiterakoan. Behar baino gehiago gastatuko duzu.

**SCORPIUS**

urriak 23-azaroak 22



Asteburua naturan emateak edo opprrek indartzen lagunduko dizute. Maitasun harremanetarako une garrantzitsua.

**SAGITTARIUS**

azaroak 23-abenduak 21



Ez zaude ingurukoak jasateko moduan. Eztanda egiteko zorian dagoen lehergailuaren modura zabilta. Konpondu familiako arazoak lehenbailehen.

**CAPRICORNUS**

abenduak 22-urtarrilak 20



Maitasuna eta sentimenduak nagusi hurrengo egunotan. Kontuz jelosiarekin, bizimodua nahastuko dizute eta. Sexuan bizi-bizi.

**AQUARIUS**

urtarrilak 21-otsailak 20




Arazo batzuk saihesteko zure planik gogokoena aldatu beharko dituzu. Diruari dagokionez, ezegonkortasuna.

**PISCIS**

otsailak 21-martxoak 20



Ikasketa eta paper kontuekin lotutako guztiak ohi baino garrantzi handiagoa izango du. Bidaiek eta, batez ere, natur inguruneetara egindako irteerek lasaitzen eta betiko gogoia berreskuratzen lagunduko dizute.



GIPUZKOAKO  
ASTROLOGI ELKARTEA

# Goiena Telebista

Posta elektronikoa: [goitb@goiena.com](mailto:goitb@goiena.com)

## Telebegi

### Patxanga

Uda badator. Bildu arropak. Jantzi eguzkitakoak. Maleta egin. Visa atera. Joan, irten, urrundu. Hanka egin. Edonola. Edonora.

Redio! nik ezin diat, hemen gelditu beharko nauk. Sargoria, hutsak kaleak, itxiak tabernak. Ni ez beste guztiak norabait joanak ote dituk, ba? Jesus! hau beroa. Hago etxean kieto. Jaitsi ezak pertsiana. Etzan hadi sofán. Ireki ezak Koka-kola lata hotza. Tira, ez duk horren gaizki egoten. Telemandoa eskuetan pasako diat udara osoa. Bai horixe! Ondo pentsatuta, inon baino hobeto nagok hemen! Piztu telebista. Uff... Karibea baino hobeagoa.


Gala del verano. Horra!

Jose Luis Moreno duk eta! Hi ere oporrik gabe gelditu al haiz, baboa? Izorrai! Jasangaitza duk hau, goazak beste batera. *Que viene la ola*. Hara, Ramon Garcia eta Ana Obregon zetoze olatuan. Inoiz ez ote dituk bi memelo hauek aspertzen? Ala por ahi! banijok hurrengora. *El termómetro*, *Furor*, *Todos al agua*, *Mójate tú*, *Parada*, *Pantoja*, *Caparrós*, *Igartiburu*...

Nahikoa da! Zoratu egingo nauk bestela eta! Neska-mutil erdi biluz irribarretsuz betetako programa insipidook beharrean sikiera pornoa botako balute, gaitzerdi! Besterik ez nian behar, hemen gelditu eta, gainera, mozolo koadrila hau guztia agoantatu behar izatea! Film lerdo bat, besterik ez diat eskatzen. Van Dammen edozeinekin konformatuko nindukek, demonio!

ETB, Euskal Telebistan aurkituko diat gordelekua, seguru! *Trikiti gaua*. Ai dios! ETB-2ra, azkar. *Miss-noche con...* *Jorge Fernandez y Marlene Murreau*. Jesukristo!

Bildu arropak. Jantzi eguzkitakoak. Maleta egin. Visa atera. Joan, irten, urrundu. Hanka egin. Edonola, edonora, badator eta uda, telebistara.



Andoni Urzelai

## Jaiak Debagoienean

### GOITB jaietan

Badator uda, eta udarekin batera Debagoieneko hainbat herritan jaiak ospatuko dituzte. GOITBk ere jaiegunotan ahalegin berezia egin gura izan du, zuei hainbat saio berezi eskaintzeko. Domekan izango duzue lehen hitzordua telebistarekin; izan ere, eguerdian Arrasateko San Juan Batailatzailearen parrokiatik *Salve Solemnea* eskainiko dizue. Astelehenean, berriz, Arrasateko Seber Altube plaza izango da *Berriak* saioa agertoki. Martizean *Xeleberri* saioaren txanda izango da; oraingoan erreportari xelebrenek arrasa-

tearrak hurbilduko dituzte mikrofonora. Eguaztenean eskaintza bikoitza dugu: batetik, Bergara Hiria pilota txapelketako final handiak eta, bestetik, *Son Caliente* talde kubatarraren emanaldia. Gogora ezazue eguen eta egubakoitzean *Soinuz blai* saio bereziak ikusteko aukera izango duzuela. Horrela esango diegu agur San Juan jaiei eta San Pedro jaien txanda izangó da. Egubakoitzean, ekainak 29, Eskoriatzako kaleetatik eskainiko dizuegu *Berriak* saioa. Hortaz, ondo ibili jaietan eta piztu telebista!

## Soinuz blai

Eguenean eta egubakoitzean, 21:30etan

### "Portu"ren omenez

Jende ugari erakarri zuen Monterron Jarkera "Portu"ren omenez egin zen kontzertuak pasa den egubakoitzean. Zortzi talderen emanaldiez gozatzeko aukera paregabea. Esperientzia errepikatu gura izanez gero, hemen duzue GOITBren eskaintza. Eguen eta egubakoitzean ikusgai duzuen *Soinuz blai* saioan kontzertu hori eskainiko dizuegu. Egubakoitzean, ekainak 22, gaueko 21:30etik aurrera, Puñetazo eta Anti-Regimen. Hurrengo eguenean, ekainak 28, Odio eta MCD. Amaitzeko, egubakoitzean, ekainak 29, Ume Gaiztuak eta RIP.



Goiena Telebista

## Asteko programazioa / Ekaina 22-28

EGUBAKOITZA 22	ZAPATUA 23	DOMEKA 24	ASTELEHENA 25	MARTITZENA 26	EGUAZTENA 27	EGUENA 28
13:30 Albiste aurrerapena	13:30 Saioen errepikapena <i>Gatza eta berakatza, Ekilan, Goibegirada, Sarrera doan, Soinuz blai, Astebete</i>	12:00 Salve Solemnea <i>Arrasateko San Juan Batailatzailearen parrokiatik</i>	13:30 Albiste aurrerapena	13:30 Albiste aurrerapena	13:30 Albiste aurrerapena	13:30 Albiste aurrerapena
13:40 Gatza eta berakatza		13:30 Asteko saioen errepikapena <i>Gatza eta berakatza, Ekilan, Goibegirada, Sarrera doan, Soinuz blai, Astebete</i>	13:40 Gatza eta berakatza	13:40 Gatza eta berakatza	13:40 Gatza eta berakatza	13:40 Gatza eta berakatza
13:50 Sarrera doan (errepikapena)			13:50 Astebete (errepikapena)	13:50 Goienasport (errepikapena)	13:50 Xeleberri berezia (errepikapena)	13:50 Bergara Hiria pilota txapelketa Finalak
20:00/20:30: Berriak			19:45 Gatza eta berakatza	19:45 Gatza eta berakatza	19:45 Gatza eta berakatza	19:45 Gatza eta berakatza
20:30 Non-zer			20:00 Berriak	20:00 Berriak	20:00 Berriak	20:00 Berriak
20:35 Berriak			20:30 Non-zer	20:30 Non-zer	20:30 Non-zer	20:30 Non-zer
21:05 Astebete			20:35 Berriak berezia Arrasatek	20:35 Berriak	20:35 Berriak	20:35 Berriak
			21:05 Goienasport	21:05 Xeleberri berezia: San Juan jaiak	21:05 Bergara Hiria Pilota txapelketa Finalak	21:00 Sarrera doan
					22:30 Son Caliente	21:30 Soinuz blai: Odio eta MCD

## Barruko kontuak


### GOITB 22. KANALEAN

Hainbat ikus-entzuleren deiak jaso ditugu, batez ere Aretxabaleta aldetik, GOITB ez dutela euren etxeetan ikusten esanez. Kontua da zenbait aldaketa egin ditugula antenan eta lehen GOITB bi kanal ezberdinetan sintonizatze-ko aukera bazenuten, orain kanal bakarretik ikusi ahal izango duzue, 22. kanaletik hain justu. Hortaz, arazoa konpontze-ko telebistan 22. kanala sintonizatzea besterik ez duzue.

### AZKEN ZOZKETAK

Xeleberri eta Sarrera doan saioak oraingo astean amaituko dira eta bi saio horiek ikus-entzuleak saritu dituzte. Alde batetik, *Xeleberri* saioak Gaztainuzketako mendi etxeetan aste bukaera bat igarotzeko saria zozkatuko du martitzenean. *Sarrera doan* saioak, berriz, musika eta liburuak oparituko ditu eguenean. Zelan ez, alde aurretik ikus-entzule guztioi, mila esker zuen leialtasunagatik!

## Kamera aurrean



"ARKOrekin lankidetzan jarraitzeko gai izan garenean, asmoa eta proiektua ona diren seinale"

XABIER ZUBIZARRETA | Arrasateko alkatea  
"BERRIAK" (2001-06-20)



"Homosexualak bere sexualitateaz hitz egin dezakeela normalizat jo arte, urte asko igaroko dira"

JOSEBA GARITANO | "Gehitu"ko Arabako koord.  
"GOIBEGIRADA" (2001-06-20)



Erosten Jakin

A photograph of a woman with dark hair lying on her back on a blue surface, wearing a bright yellow tank top. Her eyes are closed and she has a peaceful expression. The background is a textured blue wall.

**Irten** zaitenez  
**eguzkitara**

## Atzeskua

MAIDER OSA

# Juan Mari Elexpuru/Idazlea

**L**iteraturan erotismoaren hautua egin duzu. Zergatik?

Hori egia eta gezurra da aldi berean. Nik baditut zortzi-bederatzi liburu kaleratuta, haur literatura, nobela erotiko bat eta antologia bat. Horretaz gain itzulpenak ere egin izan ditut, eta hiztegi bat ere bai.

**Horietako zein esparru duzu gustuko?**

Saltsero samarra naizenez esparru denetan aritu izan naiz gustura.

Dena den, beti gustukoena izaten da azkenengo esku artean ibiltzen den lana. Momentu honetan Bergara aldeko lexikoa aztertzen dihardut. Lehendik hasitako lana da, baina orain argitaratzeko asmotan gabilta. Gure inguru honetako berbez osatutako hiztegia izango da, eta momentu honetan horretxekin nabil gusturen.

**Nolako osasuna du euskal literaturak?**

Osasun ona du. Badira hiruzpalau idazle handi, eta txikiagoak mordo bat.

Irakurleagoak, ordea, ez du hain osasun ona. Irakurle gutxi samar dago produzitzen denerako.

**Aralar, mendia baino zerbait gehiago izango da zuretzat.**

Ikusi egin behar zenbateraino irteten diren Aralar mendian

perretxikoak eta arbola ederrak, edo hondatu egingo den mendia.

**Badihardugu euskara elkartean ere badiharduzu.**

Fede pixka bat badut horretan ere, pentsatzen dudalako euskara ez dela euskara estandarra soilik. Egunero erabiltzen duguna ere euskara da, eta horri ere dagokion lekua eman behar zaiola iruditzen zait.

**Elkarrizketa hau, euskalkian ala batuan?**

Euskalkian egingo nuke, eta duda barik gainera. *Goienkariak*, beti ere nire iritziaren arabera, bertako euskalkian hitz egiten dakien pertsona bat elkarrizketatzen duenero euskalkian idatzi behar luke.

**Euskalkiek marketing falta dute?**

Ez dakit marketing falta den ala konplexu gehiegi dugun euskalkiak erabiltzerako orduan. Batua hobes-

ten dugu euskalkiaren aurrean, eta pentsatzen dugu lagunartetik kanpora, maila jasoagoan batua soilik erabil daitekeela. Hori ez da batera zuzena.

**Amets bat?**

Abiadura Handiko Tren dontsu hori ez dezatela egin, eta ea hori asmatu dutenek burutik kentzen duten, ala ea besteok gai garen burutik ken diezaiegun.

**Bizimodua abiadura txikiagoarekin hartu beharko genuke?**

Dudarik gabe. Beti presaka bizi gara, zenbat eta diru sarrera handiagoa izan hobeto biziko garelakoan. Hainbeste presarekin, ordea, ez da inora ailegatzen.

**Besterik esateko?**

Jose Mari Etxaniz etxean dugula berriro 21 urte eta erdiz kartzelan egon ondoren, eta ongietorria ematea gure gizarte zail honetara, bera leku zailago batetik badator ere.




**“Beti presaka bizi gara, zenbat eta diru sarrera handiagoa izan hobeto biziko garelakoan”**

**“Irakurle gutxi samar dago produzitzen denerako”**

**“Momentu honetan Bergara aldeko lexikoa aztertzen dihardut”**

► Bergararra / 50 urte / Idazlea

## AIPAGARRI



**IÑAZIO ARREGI**

Oñati / Ekonomilaria

Goiena Komunikazio Zerbitzuak kooperatibako zuzendari nagusia izango da uztailetik aurrera. Mikel Irizar ordezkatuko du karguan. Ekonomia lizentziatu zen Deustuko Unibertsitatearen Donostiako fakultatean. Hogei urte lan egin zuen Bergarako Aranzadi Ikastolan, hamazazpi zuzendari moduan. Azken bi urteotan Partaiden aritu da lanean, ikastolen federazioan.



**EDU ABASOLO**

Arexabaleta / telebista kamera

Andoaingo Zine eta Bideo Eskolan ikasi zuen eta urteetan ATBn lehenengo eta GOITBn ondoren aritu zen lanean. Goiena Telebistatik ETBra joan zen eta gaur egun Tele 5-ko “Gran Hermano” saioan dihardu lanean. Kamerari ari da “anaia handiaren” etxeko bizi-lagunen gorabeherak jarraitzen.

PASCUAL UNITEC

TELEKOMUNIKAZIOAK

Arrasate, 4. 20005 Donostia Tel. 943 42 04 28 eta Madril hiribidea 13.

Aurrerantzean baita Bergaran ere

LASTER ZABALIK

Ibargarai, 5.

Tel. 943 76 97 07 - 08 - 09

Zatoz, aldatu zure puntuak eta eraman ezazu momentuan bertan sakeleko telefono berria.



Zure aholkularia  
Telekomunikazioetan

Banatzaile ofiziala

Telefonica  
Movistar